

**EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LAN-
LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEENTZAKO HITZARMEN KOLEKTIBOA****LEHENENGO TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK****I. KAPITULUA.- EREMUAK. ORDEZKO ZUZENBIDEA.****1. artikulua.- Lurralde-eremua**

Hitzarmen hau Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aplikatuko da.

2. artikulua.- Langileak

1) Hitzarmen hau Berritzeguneko ikastetxe eta barrutietan lanean diharduten lan-legepeko irakasle guztiei aplikatuko zaie, finko zein aldi baterako izan.

2) Honakoak Hitzarmen honen aplikazio-eremutik kanpo utziko dira:

- a) Funtzionario publikoak.
- b) Gizartea, Kultura eta Erljioa irakasgaiko irakasleak.
- c) Eusko Jaurlaritzako langileak diren eta EAEko ikastetxe publikoetan diharduten ofiziozko profesionalak, garbitzaileak eta sukaldariak, administrazio-langileak eta mendekoak.

3. artikulua.- Indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta bere ondorio ekonomikoek atzerako eragina izango dute, 2003ko urtarrilaren 1etik hasita. Hitzarmena 2003ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

4. artikulua.- Ordezko zuzenbidea

Hitzarmen honetan aurreikusten eta arautzen ez den guztirako, Langileen Estatutuari eta aplikatu ahal diren gainerako lege-xedapenei eta araudiei egingo zaie kasu.

II. KAPITULUA.- HITZARMENA SALATZEA, BERRIKUSTEA ETA LUZATZEA**5. artikulua.- Hitzarmena salatzea eta luzatzea**

Hitzarmen hau urtez urte luzatuko da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, isilbidez kontratua berrituz, non eta izenpetzen duten alderdietakoren batek berariaz salatzen ez duen.

III. KAPITULUA.- BATZORDE PAREKIDEA**6. artikulua.- Batzorde Parekidea**

- 1) Hitzarmen hau sinatzen denean, Batzorde Parekidea eratuko da. Batzordeak zeregin hauek izango ditu: itundutakoa interpretatzea, aztertzea eta betetzen dela zaintzea, bai eta, halaber, tresna juridiko hau eta bere eranskinak osatzen dituzten gaien jarraipena egitea eta garatzea, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Batzordearen ebazpenak lotesleak izango dira, administrazioko erakundeei eta erakunde judizialei legeek eman dizkieten eskumenei kalterik egin gabe.



Batzorde honi zereginen jarraipena egin ahal izateko beste informazio helaraziko zaio.

2) Beste barruti batzuei legez ematen zaizkien eskumenak alde batera utzita, Batzorde Parekidearen esparruan, Administrazioak eta sindikatuak izango dute eskumena plangintzaren, plantillen eta hizkuntza-eskakizunen arloan, kolektibo honetako irakasleak zuzenean ukitzen dituzten gaiei buruz erabakitzeko. Esparru horretan, batik bat, etorkizunean antola litezkeen irakasleak funtzionario bihurtzeko prozesuak eta horiei zuzendutako lan-eskaintza publikoak jorratuko dira.

3) Batzorde Parekideak 16 kide izango ditu gehienez ere; eta kide horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta hitzarmen hau izenpetzen duten sindikatuak ordezkatzeko dituzte, proportzio berean. Halaber, zentral sindikal bakoitzak aholkularia izan dezake. Sindikatu bakoitzaren boto kualifikatua sindikatu bakoitzak duen ordezkari-tza ofizialari dagokiona izango da. Batzordeak ahalik eta hoberen funtziona dezan, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako teknikari bat hautatuko da, eta teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu.

4) Batzorde Parekidearen ohiko bilerarako deia bi hilabetean behin egingo da. Ohiz kanpoko bilerei dagokienez, alderdiek idatziz eta, gutxienez, bilera egin baino bost egun lehenago egin behar dute eskaera (nolanahi ere, bi alderdiek bilera premiazkoa dela jotzen badute, epe hori laburragoa izan daiteke), eta argi eta garbi adierazi behar dituzte bileran aztertu nahi dituzten gaiak.

5) Batzorde Parekidearen deialdirako idazkiak argi eta garbi zehaztu beharko ditu eguneko aztergaien zerrendan aztertu beharreko puntuak, bilera-eguna eta tokia. Bi alderdiek agertu beharko dute batzordean. Eguneko aztergaien zerrenda aldeek gutxienez hamar eguneko lehenago proposatzen dituzten puntuak osatuta egongo da, aurreko epigrafean aurreikusitako ohiz kanpoko kasuak salbu.

6) Bi aldeek aurretik jakinarazi beharko dizkiote Batzorde Parekideari bai Hitzarmena interpretatzerakoan, indarrean dagoenean eta aplikatzerakoan sor daitezkeen desadostasun guztiak, bai Hitzarmenaren eremuan barneratzen diren langileak ukitzen dituen lan-arloko beste hainbat gai. Halaber, Batzordea arduratuko da horien inguruko erabakiak hartzeaz.

Batzorde Parekidea ados jarriko ez balitz, bi aldeek bitartekaritzara jo ahal izango lukete. Hala eginez gero, edozein presio- edo gatazka-neurri hartu aurretik, eta ados jartze aldera, zortzi egun balioduneko epean bitartekaria edo adiskidetzaila izendatuko da bi aldeek proposatzen duten hirukotetik.

Sindikatuak gehiengo ados badago Administrazioak aldebakarreko egintzaren ondorioz Hitzarmenari kalte larria eragin diola, gehiengo horrek ohiz kanpoko bilera egiteko eskatu ahal izango dio Batzorde Parekideari, eta honek hiru egun balioduneko epea izango du gehienez.

7) Batzorde Parekidearen erabakiak –eta hauei dagozkien aktak- Hitzarmenaren eranskin gisa aurkeztuko dira eta gehienez ere 40 eguneko epean bete beharko dira ebatzen direnetik zenbatzen hasita.

8) Hezkuntza Sailak behar diren neurriak hartuko ditu Batzorde Parekidearen erabakiak interesdunei jakinarazteko.



IV. KAPITULUA.- LANA ANTOLATZEA

7. artikulua.- Lana antolatzea

Lana antolatzea eta diziplina jartzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ahalmena da, horrela ezartzen baitute Langileen Estatutuak eta dauden edo argitaratu daitezkeen gainerako lege-xedapenek, eta, orobat, hitzarmen honen eraginpean dauden langileek lan egiten duteneko ikastetxeetan aplikatu daitezkeen xedapenek.

Hezkuntzako Administrazioak lan-kontratuaren arabera agintzen dizkien zerbitzuak eman beharko dituzte langileek, egutegiko urte osoan edo, kontratua urtebete baino laburragoa bada, kontratuak dirauen bitartean, hitzarmen honetako artikuluetan aipatzen diren jaiegunetan eta oporretan izan ezik.

8. artikulua.- Berritzeguneetako bilerak.

Berritzegune baten barrutian lanean diharduten hezitzaileek aldian-aldian eta bertako Zuzendaritzarekin ezarritako moduan, bilerak egin ahal izango dituzte dagokien zereginarekin erlazionatutako alderdiak koordinatzeko; bilera hauek, behar bezala justifikatuta badago, langileek eskatuta ere egin daitezke.

Bileren egutegia ikasturte bakoitzaren hasieran ezarriko da, egutegia eta ordutegia zehazterakoan. Urtean gutxienez lau bilera egin beharko dira (hiru hilean behin). Bileren deialdia behar adina denboraz bideratu ondoren, langileek gaiak proposatzeko aukera izango dute eta horiek eguneko aztergaien zerrendari gehituko zaizkio.

Urtero, ikasturte bakoitzaren hasieran, Berritzeguneko barrutian dihardutenek dagozkien ikasleen ezaugarriari eta beharrei buruzko informazioa jasoko dute.

**BIGARREN TITULUA.- LANGILEEI BURUZKOA. HORNIKUNTZA****I. KAPITULUA.- LANGILEEN SAILKAPENA. PLANTILLA.****9. artikulua.- Langileen sailkapena, kategorien arabera**

Hitzarmen honen eremuan barneratzen diren langileak honako kategoriaren batean sailkatuko dira, bertan dagozkien zereginak garatzeko beharrezko titulazio akademikoa kontuan hartuta:

A) IRAKASLEAK

Goi-mailako teknikariak (A taldea):

Zuzendaria (desagertzekoa)
Sailburua (desagertzekoa)
Psikologoa-Pedagogoa
Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
Musika eta Arte Eszenikoko irakaslea
Arte Plastiko eta Diseinuko irakaslea.
Logopeda (desagertzekoa)

Erdi mailako teknikariak (B taldea):

Zuzendaria (desagertzekoa)
Haur Hezkuntzako eta Lehen Irakaskuntzako irakaslea
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
Arte Plastiko eta Diseinu tailerreko maisua.
Logopeda

Haur Hezkuntzako eta Lehen Irakaskuntzako irakasle espezialista
Irakasle egokia

B) HEZITZAILEAK

Fisioterapeuta
Gizarte-langilea
Okupazio-terapeuta
Hezkuntza Laguntzako espezialista
Transkriptorea eta Materialaren egokitzailea
Beste batzuk (desagertzekoa):
Irakaskuntza Bereziaketako irakaslea
Igeriketako irakaslea
Instruktorea

Artikulu honetan aipatutako kategoriei dagozkien zereginak Hitzarmen honen II. Eranskinean biltzen dira. Batzorde Parekideak aipatutako kategorietako batzuen izendapena aldatzeko aukera ezberdinak proposatuko ditu eta 2004ko maiatzaren 31 baino lehen zehaztuko ditu 2004/2005 ikasturtean erabiliko diren izendapen berriak.

10. artikulua.- Langileen sailkapena, egonaldiaren arabera



1) Zerbitzuko egonaldiaren arabera, hitzarmen honen eraginpean dauden langileen artean, langile finkoak edo iraupen jakineko kontratua duten langileak bereizten dira.

2) Iraupen jakineko kontratua duten langiletzat hartuko dira bitarteko langileak, obra edo zerbitzu jakineko kontratua ikasturte baterako duten langileak eta behin-behineko langileak.

Aldi baterako kontratuaren iraupena bederatzi hilabetekoa izango da gehienez, hamabi hilabeteko epean, kontratu hori egitea eragin zuen gertaera jazotzen den egunetik hasita. Hori guztia Langileen Estatutuaren 15.1b) artikuluaen arabera egingo da, artikulua horrek aukera ematen baitu sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez kontratu-mota horrekin kontratatzeko irizpideak finkatzeko.

11. artikulua.- Plantilla

Administrazioak eta sindikatuak hezitzaileen plantilla hauek aztertuko dituzte, hezkuntza-sistemako egitura-beharrak kontuan hartuta, 35 orduko lanaldia eta lanarekin lotutako neurriei buruz Mahai Nagusiak emandako erabakiarekin bat datozen ekintzak susta daitezzen.

II. KAPITULUA.- LANPOSTUAK BETETZEA ETA LANPOSTU HUTSAK

12. artikulua.- Kontratazioa

Langile berria hartzeko, Autonomia Erkidego honetako Administrazioak langileak kontratatzeko ezarri dituen arau orokorrak bete behar dira. Halakorik ezean, kontratazioaren arloan legeek xedatzen dutena beteko da.

Lan-kontratua, modalitatea zeinahi ere den, idatziz gauzatuko da, eta hiru aletan egingo da. Kontratuan parte hartzen duen alderdi bakoitzak ale bana izango du, eta bestea eskumena duen erakundearentzat izango da.

13. artikulua.- Probaldia

Langile berriak probaldian egongo dira; probaldi honen iraupena honakoa izango da:

- . 4 hilabetekoa goi-mailako tituludunentzat.
- . 3 hilabetekoa erdi mailako teknikarientzat.
- . 2 hilabetekoa hezitzaileentzat.

Probaldian, langileak eta Hezkuntza Sailak askatasun osoz suntsiaraz dezakete kontratua, aurretiko oharpenik egin gabe eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Lan-kontratu finkoa egin ez zaion langileari, finkoa izatea lortzen duenean, lanean aritutako egun guztiak balioztatuko zaizkio probaldirako eta antzintasunerako.

14. artikulua.- Lekualdatze-lehiaketa

1) Lan-legepeko hezitzaile finkoek urtero lekualdatze-lehiaketan parte hartu ahal izango dute lanpostu hutsak edo berriak eskuratu ahal izateko.

2) Lanpostu bera hartzeko langile bat baino gehiago aurkezten bada, Batzorde Parekideak baremo bat egingo du, honako irizpide hauek kontuan izanik:

- 1 - Derrigorrezko lekualdatzea jasan duen langilea, eszedentziaduna izanik.
- 2 - Enpresan duen antzintasuna (langile finkoa denean).



- 3 - Langilearena ez den barrutian aritzea, langilearen barrutian eszedentea egoteak eragin duenean egoera hori.
- 4 - LEZ-Sartzeko nota.
- 5 - Adin handiagoa.

3) Aurreko ataletan adierazitako prozeduren bitartez ateratako lanpostu berrian lanean hasteko epea esleipena egin ondorengo ikasturtearen hasieran izango da.

4) Prozedura horren bitartez lanpostua lortu duten langileek gutxienez bi urte egon beharko dute bertan, beste lekualdatzeren batean parte hartu ahal izateko.

5) Urtero, ikasturte hasieran, Berritzeguneko barrutian lanean diharduten Hezkuntza Laguntzako espezialistek bete beharko dituzten ikastetxea/k banatzeari ekingo zaio. Banatze hori langileen adostasunez egingo da.

Adostasunik ez balego, lehentasun hauen arabera jokatu da:

- 1.- Ikastetxean egonkortasuna izatea
- 2.- Gutxienez ikasturte bitan balio anitzeko geletan aritu den langilea
- 3.- Berritzeguneko eremuan bertan erreferentziarik gabe geratu den langilea
- 4.- Berritzeguneko eremuan bere borondatez mugitu nahi duen langilea
- 5.- Berritzeguneko barrutian lanean hasitako langile finkoa
- 6.- Lan-legepeko langile ez finkoak

Edozein egoera larri dela-eta, Berritzeguneko zuzendaritzak ezinezkotzat jotzen badu langileek proposatutako banaketa, hori atzera bota dezake eta, ondoren, Langileria zuzendaritzari horren berri emango dio. Besterik ezean, Batzorde Parekideak emango du horri buruzko azken erabakia.

15. artikulua.- Lan-uzteak

1) Beren borondatez lana utzi nahi duten langileek Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko diote, idatziz eta lana utzi baino hamabost egun lehenago aurregazitua eginez. Aurregazitua garaiz eta behar bezalako forman hartuz gero, lan-harremana bukatzeko likidazioa egin beharko zaio langileari, eta likidazioa egin eta hurrengo hilabetean ordaindu beharko zaio.

2) Behin-behineko langileek kontratua bukatzerakoan utziko dute kargua, itundutako epea edo luzapenarena bukatu delako. Ikasturte baterako obra edo zerbitzu jakinerako kontratatzen direnek, berriz, ikasturtea amaitzean utziko dute kargua. Bitarteko langileek ordezkatzan duten titularra lanera itzultzean edo araudi espezifikoaren arabera lanpostua betetzen denean utziko dute kargua.

16. artikulua.- Erretiroa

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileak 65 urterekin erretiratuko dira. Adin hori betetzen dutenean hasiko da, hain zuzen ere, erretiroa. Langileak ikasturtearen bigarren sei hilekoan betetzen baditu urteak, eta tartean dauden alderdiak bat etortzen badira, langileak lanean jarraitu ahal izango du ikasturtea bukatu arte.

Prestaziorako eskubidea izateko behar den gabealdia bete ez badu, langileak lanean jarraitu ahal izango du, prestaziorako eskubidea izan arte.



HIRUGARREN TITULUA.- LANALDIA ETA OPORRAK

I. KAPITULUA.- LANALDIA

17. artikulua.- Lanaldia

1) Irakasleei 1.462 ordu aitortzen dizkien indarrekoko arduraldiko araubidean oinarria harturik, irakasleei dagokienez ikasturte bakoitzaren hasieran arautu behar dira asteko lanaldiaren praktika, lanaldiko eskola-orduak eta eskolarik gabeko orduak –ezin izango da orain indarrean dagoen eskolako ordutegia, ez eta eskolan eman beharreko denbora ere, gehiago zabaldu–, eta, hala behar bada, baita ordu osagarriak ere.

Ildo horretan, lanaldiko, arduraldiko eta eskolan eman beharreko denborako araubidea unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko irakasle funtzionarioentzat ezarritako araubidea bezalakoa izango da –kasu bakoitzean, dagokiona–.

Horretatik guztitik salbuetsita daude denboraldi laburragorako kontratatu diren langileak; lan-arautegiarekin bat etorritik, beren egungo lanaldiarekin jarraitu ahal izango dute. Halaber, ikastetxeetan beharrezkoa bada, lanaldi partzialean jarduteko kontratatu direnek lanaldi osoa egin ahal izango dute.

2) Hezitzaileak:

a) Urteko lanaldia gehienez 1.480 ordukoa izango da eta ikastetxe bakoitzaren eskola-egutegira egokitu beharko da.

b) Berezitasunen arabera, fisioterapeutek eta okupazio-terapeutek irakasleen antzeko dedikazioa izango dute.

c) Hezkuntza Laguntzako espezialistek hileroko 10 ordu izango dituzte ikastetxean materiala koordinatu eta prestatzeko.

d) Norbanako Curriculum Egokitzapenaren arabera hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskola-jantokian lagundu eta zaintzen aritzen den langileei dagokienez (Hezkuntza Laguntzako espezialistak), zerbitzuaren beharretatik eta lanaren antolakuntzarekin bat etorritik, irakasleen bazkalordua eta ikasleak lagundu eta zaintzeko ordua aldi berean suertatzen badira, bazkaltzen erabilitako denbora lanekoa balitz bezala hartuko da. Kasu horietan langileei, beren bazkarirako 45 minutu bermatzen zaizkie, eta ordu osotzat zenbatuko dira.

Aurreko paragrafoan deskribatutako kasuetan, Administrazioak, beharrezko egiaztagiria aurkeztu ondoren, bazkariaren kostua ordainduko du, baldin eta eskolako jantokia erabiltzen bada.

e) Zerbitzuko eginbeharrak direla-eta, Hezkuntza Laguntzako espezialistek ikasleari bere bizilekutik kanpo gaua igarotzea eskatzen dioten jardueretan lagundu behar badiote, orduak gehituzerakoan 8 orduko jardun normalizatuko egun eta erdi hartuko dira. Jaia bada, bi egun hartuko dira. Irizpide bera aplikatuko da laguntza horiek egiten dituen behin-behineko langilea edo bitartekoa bada.

f) Urtero, ikasturtea hasi eta hilabeteko epean, lan egin behar duen ikastetxeko eskola-egutegia eta ordutegia emango zaio langileari. Egutegi hori ikasturte osorako izango da, eta egun daitezkeen aldaketak –beti ere kasu berezietan eta behar bezala adierazirik– zerbitzuko premien menpe egongo dira. Azkenik, egutegia Batzorde Parekideak onetsi beharko du.



Hezkuntza Laguntzako espezialistei dagokienez, ikastetxe bat baino gehiagotan jardunez gero –inoiz ez bi baino gehiagotan– eta horien egutegiak desberdinak badira, eguneko lanaldirik luzeena egiten den ikastetxeko egutegia errespetatuko da.

II. KAPITULUA.- OPORRAK

18. artikulua.- Oporrak

1) Irakasleek unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko irakasle funtzionarioentzat ezarritako opor-sistema berbera izango dute.

2) Hezitzaileak:

a) Urte oso bakoitzeko, ordaindutako 45 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango dute. Oporraldi hori abuztuan eta dagozkion uztaileko egunetan hartu beharko da etenik gabe.

b) Bitarteko edo behin-behineko langileak izateagatik, zerbitzu-urtea betetzen ez den kasuetan, urte horretan lan egindako denboraren arabera dagokien oporraldi proportzionala izateko eskubidea izango dute.

c) Oporren ordeaz, ezin izango da dirurik ordaindu, ez osorik ez zati batean, kasu hauetan izan ezik: urtean zehar langilearen lan-harremana bukatzen denean, edo langilea eszedentzian edota bere zereginetatik baztertuta dagoenean, eta oraindik oporraldia edo horren zati bat hartu ez badu.

d) Langileak 30 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango du, erditzea, gaixotasuna edo istripua gertatzen badira; kasu horietan, interesdunak eta lurralde-ordezkaritzak adostutako egunetan hartuko dira oporrak.



LAUGARREN TITULUA.- LIZENTZIAK, BAIMENAK, ESZEDENTZIAK ETA LAN-TRUKATZEAK

I. KAPITULUA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

19. artikulua.- Istripuko edo gaixotasuneko lizentzia

1) Langileek lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, gaixorik daudenean edo istripuren bat izan dutenean, eta, ondorioz, beren jardunak behar bezala egiteko ezgaituta daudenean –beti ere, hori horrela dela egiaztatzeko, mediku-zerbitzuek egindako baja aurkezten badute–, harik eta medikuak alta eman arte. Hala ere, ezin izango da kontratuaren gehieneko iraupena inolaz ere gainditu.

2) Administrazioak, Enpresako Osasun Zerbitzuak egindako mediku-azterketaren bidez, langilearen gaixotasunaren edota istripuaren jarraipena egin eta haren osasun-egoera egiaztatzea, egoeraren berri jakiteko, behar den laguntza emateko eta langilea lehenbailehen erabat sendatu dadin lortzeko. Langileak horrelako azterketak ez baditu egin nahi, jasotzen dituen laguntza ekonomiko osagarriak gal ditzake, entzunaldiaren izapidea idatziz egin ondoren.

3) Gaixotasuna edo istripua dela-eta lanerako ezintasun iragankorreko egoeran dauden langileek ordainsarien %100 jasoko dute, gehienez 18 hilabetetan.

Hemezortzi hilabeteko gehienezko epea amaitu eta, bien bitartean, langileak elbarritasun iraunkorren bat eskatu badu, aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa hartzeko eskubidea izango du medikuaren alta jaso arte, elbarritasuna onartuta edo onartu gabe, edo zendu arte. Baliaezintasun iraunkorra onartzen bazaio, bai guztizko baliaezintasun iraunkorra, bai erabateko baliaezintasun iraunkorra, bai eta baliaezintasun handia ere, aipaturiko eskubidea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSINen) ebazpenean adierazitako diru-ondorioen egunaren beopera arte luzatuko da.

Hori dela-eta, eskubide hori gauzatzeko eskaera hilabeteko epe luzaezinean aurkeztu behar da, epea altaren egunetik edo baliaezintasun-maila onartzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik edo, sendatzeko aukerak badaude, baliaezintasuna ukatzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik edo heriotzako egunetik hasita.

Baliaezintasuna 18 hilabeteko epea bukatu ondoren eskatzen bada, gorago aipatutako zenbatekoa jasotzeko eskubidea eskaera egiten den egunetik aurrera baizik ezin izango zaio aitortu.

4) Gaixotasuneko edo istripuko lizentziarekin dagoela langileak bere edo beste inoren konturako lanak egiten baditu, aurreko idatz-zatian ezarritako zenbatekoa eskuratzeko eskubidea galduko du, eta, arrazoi horregatik diru-kopururen bat jaso badu ordurako, itzuli egin beharko dio Administrazioari hilabeteko epean, eta diziplinako espedientea irekitzeko aukera ere egongo da.

5) Gaixoaldia edo istripu-aldia borondatez eta arrazoirik gabe luzatzen duen langileak diziplinazko erantzukizuna izango du, besteak beste, eta bigarren idatz-zatian ezarritako zenbatekoa eskuratzeko eskubidea galduko du.

20. artikulua.- Haurdunaldiko, erditzeko eta bularra emateko lizentzia

1) Hitzarmen honen eraginpeko emakume langileek haurdunaldiko eta erditzeko lizentzia har dezakete. Lizentziak hemezortzi asteko iraupena izango du, eta, erditze multiplea izanez gero, bi aste luzatu daiteke seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera. Interesdunak aukeratuko du denboraldia nola banatu, baina umea izan eta berehala sei aste hartu beharko ditu. Ama hiltzen bada, aitak hartu ahal izango ditu baimeneko egun guztiak edo, baimena hasita badago, gelditzen diren egunak.



Hala ere, amak erditu ondoren nahitaez hartu beharreko atsedendiko astei kalterik egin gabe, biek lan egiten badute, amatasuneko atsedendia hastean, amak erabakiko du biek batera edo elkarren segidan hartuko duten erditze ondoko atsedendia horren etenik gabeko tarte zehatz bat, ama lanean hasteak haren osasunerako arriskua dakarrenean izan ezik. Atsedendiak aldi berean hartzen badira, atsedeen-egunen batuketa egitean, ez da aurreko idatz-zatietan ezarritako hemezortzi asteko muga gaindituko. Orobat, erditze multiplea izanez gero, ez dira horri dagozkion asteak gaindituko.

Lizentziako denboraldi osoa bukatu ondoren, koadro klinikoa ikusita emakume langileak lana behar bezala burutzeko eragozpenak baditu, aldi baterako ezintasuneko baja hartuko du, horretarako behar diren izapideak egin ondoren.

2) Aurreko idatz-zatian araututakoaren arabera aita, gutxienez, baimeneko lau astez baliatzen bada, orduan, bi aste gehiago hartzeko eskubidea izango du.

3) Oporraldia eta haurdunaldiko, erditzeko eta bularra emateko lizentzia-aldia elkartzeko modukoak izango dira, nahiz eta oporraldiari dagozkion egutegiko urtea amaiturik egon.

4) Era berean, emakume langileak lanean ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea du hamar hilabete baino gutxiagoko seme-alaba bakoitzeko; denbora hori bi zatitan bana dezake bularra edo biberioa emateko. Emakumeak, hala nahi badu, eskubide horren orde zehatz lanaldia ordubetez murriz dezake, helburu bererako bada. Biberioa ematen denean, lan-jardunaldian etenaldia egiteko edo lanaldia gutxitzeko eskubidea aitari pasatu ahal zaio, aita eskatzen badu eta, ama langilea dela egiaztatu ondoren, amak lizentziako eskubideari uko egiten diola edo ezin dela lizentziaz baliatu ziurtatzen badu.

Emakume langileak aurreko paragrafoan azaldutako lizentziari eustea, edo denbora hori haurdunaldiko, erditzeko eta bularra emateko lizentziari gehitzea izango du aukeran. Gehituz gero, sei ordu izango dira lanegun bakoitzeko.

5) Administrazioak laguntza osagarriak ordainduko ditu emakume langileak lansarien %100 jaso dezan amatasuneko bajaran eta haurdunaldiko arriskuagatik lizentziarekin dagoen bitartean.

6) Artikulu honek aipatzen dituen denboraldiak lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean hartu ahal izango dira.

21. artikulua.- Aitasuneko lizentzia

1) Erditze-kasuan, aita bost laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du –egunak elkarren segidakoak edo etenak izan daitezke–, umea jaio eta 15 egutegi-eguneko epearen barruan.

2) Erditzea dela-eta, amak edo umeak osasun-arazoren bat izanez gero (zesarea, etab.), edo erditzea aitaren ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatuz gero, aita bi lanegun gehiago izango lituzke, kasu bietan.

22. artikulua.- Adopzioko edo harrerako lizentzia.

1) Sei urte arteko haurren adopzioei eta adopzio aurrekoak nahiz iraunkorrak diren ume-hartzei dagokienez, langileak ondoz ondoko hemezortzi asteko lizentzia hartu ahal izango du. Gainera, adopzioa edo ume-hartzea multiplea bada, bi aste gehiago luza daiteke lizentzia seme-alaba bakoitzeko, bigarren seme-alabatik hasita. Aste horiek guztiak langileak nahi dituen hasiko ditu, ume-hartzearen inguruko administrazio-erabakia edo erabaki judiziala ezagutzean edo adopzioa finkatzen duen ebazpen judizialaren berri izatean.

Baimena, era berean, hemezortzi astekoa izango da sei urtetik gorako haurrak adoptatzen edo hartzen diren kasuetan, haurrok ezgaituak edo elbarriak badira, edo, inguruabar eta esperientzia



personalak direla-eta edota atzerritik datozelako, gizartean eta familian txertatzeko arazo bereziak badituzte eta gizarte-zerbitzu eskudunek behar bezala egiaztatu badituzte arazo horiek.

Amak eta aitak biek lan egiten badute, nahi duten moduan banatuko dute baimena, eta, horrenbestez, aldi berean edo elkarren segidan hartu ahal izango dute, baina etenik gabeko denboraldiak egin beharko dituzte beti. Atsedenaldiak aldi berean hartzen badira, atsedeen-egunen batuketa egitean, ez da aurreko idatz-zatietan ezarritako hemezortzi asteko muga gaindituko. Orobat, adopzio multiplea edo haur-hartze multiplea izanez gero, ez dira horri dagozkion asteak gaindituko.

Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira joan behar badute, artikuluko honek kasu bakoitzean ezartzen duen baimena adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da.

- 2) Aurreko idatz-zatian araututakoaren arabera aita, gutxienez, baimeneko lau astez baliatzen bada, orduan, bi aste gehiago hartzeko eskubidea izango du.
- 3) Oporraldia eta hurrak adoptatzeko eta hartzeko lizentzia-aldia metatu ahal izango dira, nahiz eta aldiari dagokion egutegiko urtea amaiturik egon.
- 4) Artikulu honek aipatzen dituen denboraldiak lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean hartu ahal izango dira, Hezkuntza Sailak eta ukitutako langileak bat etorri ondoren.

23. artikulua.- Norbera edo senideak ezkontzeagatik hartutako lizentzia

1) Langileak 20 egutegi-eguneko lizentzia izango du ezkontzeagatik. Lizentzia ezkontza ospatu baino lehen edo ospatu ondoren hartu ahal izango da, baina, edonola ere, ezkontzaren eguna epealdiaren barruan geratuko da.

Lizentzia hori oporraldiari gehitu ahal zaio aurretik zein atzetik; horrela eginez gero, dagokion lurralde-ordezkaritzari adierazi behar zaio, gutxienez 15 egun lehenago.

2) Era berean, bikoteko bizikidetzaren egonkorrean (ezkontzaz kanpoko elkarretetan) hasten den langileak lizentzia honetaz baliatzeko eskubidea izango du, beti ere bikoteko bizikidetzaren frogatzen badu, bizi diren tokiko udalaren bizikidetzako ziurtagiria edo, Elkarketa Zibilen Udal Erregistroa balego, horrek emandako egiaztagiria aurkeztuz.

Ezkontza edo bizikidetzaren egonkorra dela-eta, ezin izango da beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte eta inolaz ere ez bikoteko kideak berberak direnean.

3) Ezkontza langilearen gurasoena, aita-amaginarrebena, neba-arrebena, suhi-errainena, seme-alabena, ilobena edo aitona-amonena denean, langileak ezkontza-eguna izango du libre, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago egiten bada, hiru egutegi-egun emango dira libre.



24. artikulua.- Senideen gaixotasun larriagatik edo heriotzagatiko lizentzia

1) Langileak arrazoi honengatik har dezakeen lizentziaren iraupen-aldiak honako hauek dira: Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen heriotzagatik, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen heriotzagatik, 3 lanegun; eta ezkontidearen, bikotekidearen edo seme-alabaren egiaztaturiko gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik, 5 lanegun.

Bi lanegun izango ditu odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larriagatik edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen gaixotasun larriagatik.

2) Aipaturiko lizentzia-aldiei 2 egutegi-egun gehiago gehituko zaizkie, gertakizunak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen badira.

3) Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik ondoko 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatutako azkenburuko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epea egongo, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatiko luzapena.

Langileak odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien baimena, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien baimena hartzen bada, eta, baimenarekin dagoen bitartean, gaixoa hiltzen bada, heriotzako baimeneko egunak heriotza gertatzen den egunetik hasiko dira kontatzen.

4) Batzorde Parekideak ezarriko ditu irizpideak gaixotasun larria zer den zehazteko. Zalantzak daudenean, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Medikuak larritzat hartzen dituen gaixotasunak joko dira horrelakotzat.

5) Artikulu honetan araututako lizentziarako ezarritako lanegunak horiek emateko arrazoi diren kasuak gertatzen diren egunetan hartu beharko dira.

25. artikulua.- Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia

1) Ezinbestez bete behar diren betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak egiteko, behar beste denbora izango dute langileek, baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

2) Akordioari dagokionez, hurrengoak hartuko dira nahitaezko betebeharrak publikotzat eta norberaren betebehartzat:

- a) Epaitegien, komisarien, gobernu zibilen edo militarren zitazioak, ikuskapen militarrek edo arma-ikuskapenak, NAN, pasaporteak, egiaztagirak eta erregistro-izapideak, erakunde ofizialetan.
- b) Elbarri fisikoak edo psikikoak diren odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei izapide zehatzak egiten laguntzea.
- c) Gida-baimena eskuratzeko edo berritzeko azterketa.
- d) Notarioen errekerimenduak eta izapideak.
- e) Erakunde ofizialetan egin beharreko izapideak.
- f) Zinegotzi, diputatu, ahaldun edo batzarkide gisako hautetsi lege, gobernu-organoen eta beraien menpeko batzordeen bileretara joatea.

**26. artikulua.- Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia**

Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. Errola-ziurtagiriaz egiaztatu beharko du hori.

27. artikulua.- Sindikatuaren edo langileriaren ordezkari gisa jarduteko lizentzia

Sindikatuaren edo langileriaren ordezkari-lanak egiten dituzten langileek horri dagokion lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudian eta hitzarmen honetan jasotako baldintzen arabera.

28. artikulua.- Lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten hobekuntza-ikastaroak egiteko lizentzia

Lizentzia hau irakasleei ematea aukerakoa da – urtero lizentzia hauen deialdietan ezartzen dena hartuko da kontuan – eta hori eskuratuz gero, dagozkion ordainsariak jasoko dira.

29. artikulua.- Adingabeak, ezgaituak edo odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko edota norberaren gaixotasunagatik hartutako baimena

Legez agindutako zaintza duelako, langileak zuzenean bere ardurapean hamabi urtetik beherako adingabekoren bat, edo ordaindutako lanik egiten ez duen ezgaitu fisikoren, psikikoren edo sensorialen bat, edo larriki gaixotuta dagoen eta berarekin bizi den odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat –edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat– badu, edo, halaber, langilea bera gaixotzen bada, orduan, lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango du. Murrizketa hori lanegunaren herenekoa izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du horrek.

30. artikulua.- Gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena

Langileak mugitzeko arazoak dituen edo gaitz larri jarraituren bat –txosten medikuaren bidez behar bezala egiaztatutakoa– duen odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat zaindu behar badu, langileak ordaindutako berrogeita hamar ordu arteko baimena izango du ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu-kreditu hori erabiltzeko egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehienez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtetearekin batera erabili beharko dira.

31. artikulua.- Ikasketak edota praktikak egiteko baimena

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak baimen hori eman dezake, ikasturte luzaezin bateko ordainsariei berariaz uko egin ondoren.

32. artikulua.- Azterketetan parte hartzeko baimena

Langileek zentro ofizialetako edo homologatuetako azterketetara joateko baimen-eskubidea izango dute. Egutegiko egun bat emango zaie azterketa bakoitzeko –bai deialdi arruntetan, bai ohiz kanpoko deialdietan–, aldez aurretik egiaztagiria aurkezten badute. Baimen hori bi egutegi-egunetz luzatuko da, azterketa-lekua azterketa egiten duenaren ohiko egoitzatik 150 km. baino urrunago baldin bada. Baimen hau ordaindu egingo da.

**33. artikulua.- Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena**

1) Langileek eskubidea dute lanaldiaren barruan kontsulta, tratamendu eta medikuaren azterketa egitera joateko, arrazoiak behar bezala egiaztatzen badituzte eta osasun-zentro horietan bestelako kontsulta-ordurik ez badute langilea lanorduetatik at joateko.

2) Haurdunaldian dagoen emakumeak erditzea prestatzeko teknikak ikastera eta jaio aurreko azterketak egitera joateko behar beste denborarako baimena izango du, eta ordaindu egingo zaio. Astean lau ordu izango dira, goitik jota. Horretarako, egiaztatu egin beharko da jarduerak lanaldiaren barruan egin behar direla eta benetan bertara joan behar dela.

34. artikulua.- Zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte- eta sindikatu-izaerako gertakizun kolektiboetara joateko baimena

1) Era berean, biltzar, ikastaldi, ikastaro, mintegi, symposium, topaketa, lehiaketa, elkarrizketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte- eta sindikatu-izaerako bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko baimena eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharrianak kontuan izanik eta dagokien lurralde-ordezkaritzak baimendu ondoren.

2) Langileak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egunera arte ordainduko da. Muga horretatik gorako soberakina, berriz, ez da ordainduko, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez dietarik, ez bidaia-gasturik, ez egonaldi- edo inskripzio-gasturik, ez beste ezer, den-denak langilearen kontura izango baitira.

35. artikulua.- Kargu hautetsiari dagozkion zereginak egiteko baimena

Instituzioetako kargu hautetsiak diren langileek baimena izango dute kargu horiei dagozkien eta 21. f) artikuluko kasuetan sartuta ez dauden zereginak betetzeko, behar adina denboran eduki ere, baldin eta orduen kopuru osoak urteko lanaldiaren %10 gainditzen ez badu.

Egoera horretan dauden langileek lanaldi arrunteko orduak murrizteko baimena har dezakete. Murrizketa hori lanegunaren bostenekoa, herenekoa edo erdikoa izango da, eta lansariaren atal guztien heineko beharpena ekarriko du bere baitan.

36. artikulua.- Norberaren eginkizunetarako baimena

1) Norberaren eginkizunetarako baimena, oso arrazoi bereziagatik ez bada, ezin izango da eskatu jardunean hasi edo lanera itzuli eta urtebete igaro arte.

2) Norberaren eginkizunetarako baimen-aldietan ez da ezer ordainduko; gainera, baimen-aldia oporrei kenduko zaie hein berean. Iraupena, guztira, ezin izango da hiru hilabetekoa baino luzeagoa izan bi urtetik behin.

Bi urteak baimen-aldia hartzen den lehenengo egunetik hasiko dira zenbatzen; hori horrela, ondoz ondoko hiru hilabeteko aldirako ematen bada, ezin izango da beste bat eman bi urte igaro arte, lehenengoaren hasiera-egunetik hasita. Aldi laburragoetan, halaber, hasiera-egunetik hasiko da zenbatzen, baina bi urteko epearen barruan norberaren eginkizunetarako beste baimen batzuk eman ahal izango dira, hiru hilabeteak osatu arte.

Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen denean, urtean ondoz ondoko lau hilabete eman ahalko dira gehienez.

Hala zehazten den kasuetan, ikasketa ofizialak egiteak lanaldia murrizteko eskubidea ekar dezake; murrizketa hori lanaldiaren heren batekoa izango da gehienez eta lansariaren atal guztien heineko beharpena ekarriko du bere baitan. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada baimena, eta beti ere gobernuz kanpoko erakundeen babespean bada, baimenaren iraupena, metatuta hartuta, ezin izango da urtebetetik gorakoa izan bost urtetik behin, eta gutxieneko aldia hiru hilabetekoa izango da.



3) Administrazio eta erakunde publikoetako kidegoetara eta eskaletara sartzeko deialdietan baimena emango da ezarritako hautatze-probetako ariketak egiteko. Baimen hori probetan parte hartzeko behar adina denborarako emango da.

Halaber, baimena emango da zigor askatasun-gabetzailereren bat betetzen ari den odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bati bisita egiteko, behar beste denborarako eman ere, baldin eta bisitak lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

4) Baimen hori, dena delako modukoa izanik ere, laneko beharren arabera emango da. Ebazpena ezezkoa bada, horren arrazoiak eman beharko dira.

5) Baimen hori hartzeko eskubidea daukan aldi baterako langileak gutxienez urtebeteko zerbitzualdi pilatua izan beharko du administrazioan, eta indarrean dagoen ikasturtean gutxienez 6 hilabete izan beharko ditu pilatuta. Horretarako, ikasturte baterako egiten den kontratua izanez gero, bigarren baldintza betetzen dela ulertuko da.

37. artikulua.- Aplikazioa

Izatezko eta zuzenbidezko bikoteak senar-emaztetzat hartuko dira Kapitulu honetan aipatutako lizentziak eskuratzeari dagokionez.

Bularra emateko etenaldia, eta adingabekoak, elbarri fisikoak, psikikoak edo sentzorialak, edota odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko lanorduen murrizketa bateragarriak direnean izan ezik, ezin izango da inoiz ere aurreko artikuluan adierazitako lizentzia edo baimen bat baino gehiagoz baliatu aldiko. Oporraldiak dirauen artean, ezin izango da ordaindutako lizentziaz edo baimenez baliatu.

38. artikulua.- Lanpostura itzultzea

Lizentzia eta baimena hartzeko denbora bukatu ondoren, langileek berehala itzuli beharko dute dagokien lanpostura.

II. KAPITULUA.- ESZEDENTZIAK

39. artikulua.- Eszedentziak

Eszedentzia borondatezkoa edo nahitaezkoa izan daiteke.

1) Nahitaezko eszedentziak lanpostua gordetzeko eta antzintasuna zenbatzeko eskubidea emango du. Honako kasuetan emango da, Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari idatziz horren berri eman ondoren:

- a) Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langilea lanera joan ezin denean.
- b) Langileak herrialdean edota lurralde-eremu handiago batean eginkizun sindikalak bete behar baditu, ordezkari-kargua duen bitartean.
- c) Langileak askatasuna galdu duenean –prebentziozko atxilotzea eta behin-behineko espetxeratzea barne hartuta–, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.

Eszedentzia nahitaez hartzen duen langileak gehienez hogeita hamar egutegi-eguneko epea izango du lanera itzultzeko, zegokion zerbitzu, kargu edo zeregina utzi zuenetik zenbatzen hasita. Eszedentzia-egoera bukatu eta ezarritako epe barruan dagokien lanpostura itzultzen ez badira, behin betiko baja emango zaie.



2) Urtebeteko antzintasuna bete duten langileek borondatzeko eszedentzia eska dezakete, idatziz; eta, aurreko lau urteetan eszedentziarik hartu ez badute, gutxienez urtebetekoa eta gehienez bost urtekoa izango den eszedentzia emango zaie.

Bestelako mugarik gabe, langileek eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, hiru urtetik beherako eperako, seme-alaba bakoitza —haur naturala zein umeordea— zaintzeko. Horrelakoetan, epea haurraren jaiotegunetik edo ebazpen judizialaren datatik aurrera kontatuko da. Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzintasunaren ondorioetarako. Ondorengo seme edo alaba bakoitzak beste eszedentzia baterako eskubidea emango du; hala gertatuz gero, une horretan burutzen ari zen eszedentzia bertan bukatuko da. Aitak eta amak, biek lan egiten dutenean, eskubide horretaz ezin izango du bietako batek baino baliatu.

3) Langileek gehienez urte bateko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzintasunaren ondorioetarako. Era berean, prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko eskubidea izango du. Bestalde, beste subjektu batek beste eszedentzia bat hartzeko eskubidea sortzen badu, eszedentziako denboraldi hori hasten denean langileak lehendik zeukan eszedentzia bukatuko da. Kolektiboko bi langilek edo gehiagok eszedentzia hartzeko eskubidea badute eta eskubidea eragiten duena subjektu berbera bada, orduan, batek baino ezingo du eskubideaz baliatu.

4) Eszedentzia irailean hasiko da, besterik adosten ez bada. Seme/alaba txikia zaintzeko ere, amatasun-lizentzia bukatu eta berehala hasiko da.

Borondatzeko eszedentzia hartu duen langileak berriz lanera itzultzeko eskatzen duenean, bere kategorian hutsik geratzen den lehen lanpostua betetzeko eskubidea izango du, edo, bestela, hutsen bat gelditu arte itzaroteko.

40. artikulua.- Askatasuna galdu izanagatik lan-harremana etenda uztea

Askatasuna galdu izanagatik lan-harremana etenda duen langileak bere lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du epai kondenatzailea jasotzen ez duen bitartean. Egoera horretan dagoen bitartean, dagozkion ordainsariak jasoko ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.



III. KAPITULUA.- LAN-TRUKATZEAK

41. artikulua.- Lan-trukatzeak

1) Hezkuntza Sailak jardunean dauden langile finkoen artean lantokiak aldatzeko baimena eman dezake salbuespen gisa, eta beti ere honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Langileon lanpostuak lan-kategoria berekoak badira eta hitzarmen honen eraginpean badaude.
- b) Lana trukatu nahi duten langileek hainbat urte badaramatzate lanean, eta lanean daramatzaten urteen artean dagoen aldea bost urtetik gorakoa ez bada.
- c) Aurretik ikastetxe bakoitzeko zuzendariak eta Hezkuntza Ikuskaritzakoak horren aldeko txostena aurkeztu badute.

2) Ezin izango da lan-trukatzerik baimendu, langileetako bati hamar urte baino gutxiago falta bazaio nahitaezko erretiroko adina betetzeko.

3) Langileei lana trukatzeko baimena eman eta hamar urteren barruan, ezin izango zaie berriro lan-trukatzerik baimendu. Batzorde Parekideari dagokio kasu bereziak zehaztea; horietan, bidezkoa izango da epea lau urtera jaistea.

4) Batzorde Parekideari eskatu diren lan-trukatzeen berri emango zaio, eta Sailak trukatzeko horiek eman edo ukatu dituen jakinaraziko zaio.



BOSGARREN TITULUA.- ORDAINSARIAK

42. artikulua.- Soldata

1) Talde honetako langileek 2003. urtean izango dituzten ordainsariak hitzarmen kolektibo honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera finkatu dira.

I. Eranskinak beren kategoriarako aurreikusten duen ordainsaria gainditzen duten langileek kopuru bera jasotzen jarraituko dute, irensgarria izango den osagarri pertsonal iragankorrari esker. 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko diren irensteko prozedura eta iguera linealak gai honen inguruan Negoziazio Mahaia hartutako erabakiko baldintzei jarraiki aplikatuko dira (baldintza horiek Hitzarmen Kolektibo honen akordio-aktarekin batera onetsi dira).

2) Lanaldi partzialeko lan-kontratuko langileen ordainsaria kategorian berean lanaldi osoko kontratua duten langileen ordainsariaren arabera izango da.

3) Ordainsariak hilak bete ahala ordainduko dira, hilabete bakoitzaren azken egunetan, langilearen kontu-korrontean edo aurrezki-libretan sartuz.

4) Zuzendaritzako eta erantzukizun handiko karguak hitzarmen honen eraginpeko langileek betetzen dituztenean eta kargu horiek ez direnean langilearen lanbide-kategoria berekoak, kargu horiek betetzeko osagarriak irakasle funtzionarioen arloari dagozkion berberak izango dira.

43. artikulua.- Antzinasuna

1) Talde honetako langileek 2003. urtean izango dituzten antzinasuneko osagarriak hitzarmen kolektibo honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera finkatu dira.

2) Sortutako hirurtekoek I. Eranskinean adierazitako balioa gainditzen badute ere, mantendu egingo dira osagarri pertsonal iragankorraren bitartez.

3) Langilea enpresan sartzen den eguna izango da antzinasuna zenbatzeko hartuko den hasierako eguna, eta antzinasunerako kontuan hartzekoak ez diren epealdiak hortik kenduko dira. Hirurteko bakoitzaren zenbatekoa mugaeguneratu eta hurrengo hileko lehenengo egunetik aurrera hasiko da ordaintzen.

4) Behin-behineko langileei lanean hiru urte osatu ondoren ordainduko zaie antzinasuna. Lan-kontratu mugagabea duten langileei edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak aitortuko zaizkie, langileak eskaera egin eta emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen agiria aurkeztu ondoren.

44. artikulua.- Aparteko ordainsariak

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek 2005. urtetik aurrera aparteko bi haborokin jasoko dituzte; haborokin bakoitzak hilabete arrunt bateko soldataren zenbatekoa gehi antzinasuna izango du, eta ekainean eta abenduan ordainduko dira. Urtearen barruan lanean hasten diren edo lanari uzten dioten langileei aparteko ordainsariak ordaintzeko, langileak lan egindako denbora aintzat hartuta hainbanatuko da zenbatekoa.

**SEIGARREN TITULUA.- LAN-BALDINTZAK HOBETZEA**

I. KAPITULUA.

AURRERAKINAK. NOMINA-AURRERAPENAK. BIZI, ISTRIPU ETA ERANTZUKIZUN ZIBILEKO
ASEGURUA**45. artikulua.- Aurrerakinak**

Jardunean dauden langileek, indarrean dauden aurrekontuetako diru-izendapenen barruan, beren hileko soldata garbiaren %100erainoko aurrerakinak, korriturik gabe, jasotzeko eskubidea izango dute, beren kontratu-harremana hilaren azkena baino lehenago bukatzen ez bada. Aurrerakin hori eskatu deneko hileko soldatan eman beharko da.

Orobat, hilero edonolako atxikipenik egiten zaienek hileko soldata garbiaren %100eko aurrerakina jaso ahal izango dute, aipatutako atxikipena kenduta.

46. artikulua.- Nomina-aurrerapenak

Lan-legepeko langile finkoek nomina aurreratzeko eskubidea izango dute, hitzarmena sinatzen denetik aurrera, jarraian azaltzen diren arauen arabera.

Oraindik egiteke dagoen lan bati dagozkion ordainketen kargura ematen diren diru-zenbatekoak ordaintzea jotzen da nomina-aurrerapentzat.

1) Nomina-aurrerapena 4.207 eurokoa izan daiteke gehienez. Nomina-aurrerapena emateko, bosgarren idatz-zatian presazko behartzat jotako inguruabarretako bat gertatu behar da. Halere, idatz-zati horretan jasotako e), f), g) h) i), j), k) eta l) kasuetan, gastuen frogagiritan agertzen den kopuruak zehaztuko du zenbat den eman beharreko zenbatekoa aipatutako gehienezko zenbatekoen mugen barruan. Agiriok, eskaerarekin batera, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, premia larria egiaztatzeko.

2) Itzultzeko gehienezko epea hogeita lau hilabetekoa izango da. Aurrerapenengatik ez da inolako korriturik ordainduko, eta emandako gehienezko epea bete baino lehenago itzuli ahal izango dira.

3) Ezin da nomina-aurrerapenik eman lehenik emandako aurrerapenak zeharo likidatu arte. Halaber, gutxienez sei hilabete igaro behar dira nomina-aurrerapen bat kitatzen denetik beste bat eskatu arte. Hala ere, aurrerapenaren kausa f) idatz-zatian ageri dena bada, aurrerapen bakarra baliatu ahal izango da hamar urteko epealdian. Ibilgailua eskuratzeko aurrerapenaren kasuari dagokionez, ezin izango da nomina-aurrerapenik eman aurreko aurrerapena eman zenetik bost urte igaro arte.

Nomina-aurrerapena jasotzen dutenen administrazio-egoera nola edo hala aldatzen bada, eta, hortaz, nominan baja eman behar bazaie sei hilabete baino epealdi luzeagoz, aurrez osorik itzuli beharko dute emandako nomina-aurrerapena.

4) Indarrean dauden kredituen gehieneko kopuru erabilgarria soldata-kostuen %2ren parekoa izango da.



5) Premia larriak.- Egoera hauetatik sortutakoak hartuko dira premia larritzat:

- a) Eskatzailea ezkontzea edo bikoteko bizikidetzaren egonkorrean hastea –hori ziurtagiriaren bidez behar bezala egiaztatuta beharko du–.
- b) Eskatzailea dibortziaztea, banatzea edo ezkontza baliogabetzea.
- c) Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza.
- d) Seme-alabak jaiotzea, edo haurrak adoptatzea edota hartzea.
- e) Eskatzailearen edo ezkontidearen, bikotekidearen, seme-alaben edota hartutako haurren gaixotasun edo ebaketa kirurgiko larria.
- f) Ohiko bizilekua erostea eta ohiko bizilekua erosteko hartutako bankuko kredituak amortizatzea. Balizko honetan, aurrerapena 9.015 eurokoa izan daiteke, eta eskatzaileak gehienez ere 48 hiletan itzuli beharko du.
- g) Ohiko bizilekua zaintzeko beharrezko eta ezinbesteko obrak egitea.
- h) Lantokia dagoen herrira bizitzera joatea.
- i) Ohiko bizilekuko altzariak erostea.
- j) Eskatzaileak zentro ofizialetan egindako ikasketen matrikulako gastuak.
- k) Ibilgailua erostea. Ibilgailua lanean erabiltzeko erosten bada, eta dagokion lurralde-ordezkaritzak aurrez egiaztatzen badu, maileguaren zenbatekoa 5.409 eurorainokoa izan daiteke eta eskatzaileak gehienez ere 36 hiletan itzuli beharko du.
- l) Antzekoak diren beste inguruabar batzuk, horrela kalifikatzeko modukoak baldin badira.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak ukatu dituen eskaerak aldian behin jakinaraziko zaizkio Batzorde Parekideari.

6) Izapideak.- Nomina-aurrerapenerako eskaerak aurkezteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera eragin duen gertakizunaren egunetik hasita. Hala ere, salbuespenezko kasuetan, gertakizunaren egunaren aurreko hilean datatutako eskaerak ere onartu ahal izango dira, eskatzaileak agintzen badu, nominaren aurrerapena ematen den egunetik hasita bi hilabeteko epean, dagozkion egiaztagiria aurkeztuko dituela –behar bezala egiaztatutako kasuetan izan ezik–. Agindu hori ez betetzeak besterik gabe baliogabetuko du aurrerapena.

Nomina-aurrerapenerako eskaerak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzara igorri beharko dira, lurralde-ordezkaritzaren bidez. Lurralde-ordezkaritzak, bestalde, aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, eskaeraren harrera-data jaso eta haren etorkiari buruzko aurretiazko txostena egin beharko du.

47. artikulua.- Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruia

1) Administrazioak, hitzarmen hau sinatu ondoren, istripuko aseguruaren polizak gaurkotuko ditu ondorengo kopuruen arabera:

Heriotza:	18.030 €
Erabateko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 €
Guztizko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 €
Partezko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 euroraino, baremoaren arabera

2) Akordio hau sinatzen denetik hiru hilabeteko epean, Administrazioak bizitza-aseguruaren eta erabateko baliaezintasun iraunkorreko aseguruaren poliza eguneratuko ditu 18.030 euroko estalduraraino.

3) Hitzarmen honen eremuan sartzen diren langileek erantzukizun zibileko polizaren estaldura dute. Administrazio autonomo honek egin du poliza hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, erakunde autonomoen, ordezkarien, langileen eta mendekoen alde, bere egitekoak betetzen edo bere lanbide-jarduna egiten ari dela.



Poliza horren estaldurak 6.010.000 euroko muga du hirugarren batzuentzako kalteei dagokienez, eta, 1.202.000 euroko azpimuga, egindako kalteak Administrazioako langileen lanbide-erantzukizunen ondorioa badira.

4) Azterlan bat egingo da lehen deskribatutako polizen hedadura berrikusteko.

5) Administrazioak subsidiarioki bere gain hartzen du bere zereginak garatzearen ondorioz eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan egin behar duen irakaskuntzako lana dela-eta irakasleek izan dezaketen erantzukizun zibila.

II. KAPITULUA.- GIZARTE LAGUNTZAK

48. artikulua.- Borondatezko erretiroaren kalte-ordainak

1) Borondatezko erretiroa hartzen duten irakasle finkoei, LOGSEk (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak) Bederatzigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki, aparteko haborokin gisa egokituko litzaiekeen zenbatekoa emango die Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketak Sailak. Borondatezko erretiroaren sariak erretiroko pentsioa osatuko du, langileak 65 urtera arte jardunean egonda jasoko lituzkeen ordainsari garbien %99raino.

2) Alabaina, LOGSEk Bederatzigarren Xedapen Iragankorrean ezarritako araubidean sartu nahi ez dutenek eta hezitzaileek borondatezko erretiroaren saria jaso dezakete, baldin eta honakoak betetzen badira: a) Erretiro horretarako eskaera borondatezko erretiroa hartzeko eguna baino gutxienez hilabete lehenago egiten badu, eta, b) Dena delako kasuan eska daitekeen aurretiazko izapideari emandako erantzunaren berri jaso ondorengo hilabetean baliatzen bada eskubide horretaz.

Edonola ere, borondatezko erretirorako adina betetzen den egunetik aurrerakoak izango dira ondorio ekonomikoak.

Hilerokoen kopurua zehazteko, gorago aipatu diren baldintzetakoren bat betetzen ez duten langileei nahitaezko erretirorako urtebete gutxiago falta zaiela joko da, dena delako kasuan eska dakiekeen aurretiazko izapidea egin beharra izanagatik ere, adin hori betetzen duten egunean erretiratu ahal dutenean izan ezik.

Sariaren zenbatekoa honako eskala honen arabera kalkulatu da, ordainketa gordin osoei buruzko erreferentzia eginez, beti ere:

Adina	Hilerokoen kopurua	
60 urte	18	"
61 urte	14	"
62 urte	10	"
63 urte	6	"
64 urte	3	"

Kalte-ordainaren hileroko zenbateko bakoitza interesdunari borondatezko erretiroa hartzen duenean ematen zaion urteko ordainsari gordinaren hamabirena izango da.

Eskatzaileak dagokion kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izan nahi badu, zerbitzuak ematen jardun behar izan du azken hamar urteetan.

Interesdunak bere erretiroa eta erretiroaren ondorioetarako data jasotzen dituen GSINen ebazpena aurkeztu ondoren ordainduko da ezarritako kalte-ordaina. Halaber, Ebazpenarekin batera, interesdunak baliaezintasuneko espedientea hasi ez zaiola egiaztatzen duen GSINen ziurtagiria ere aurkeztu behar du.



49. artikulua.- Laneko arropak

Hitzarmen honen eraginpean dauden hezitzaileek 72 € jasoko dituzte urtean kontzeptu honetarako. Kopuru hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako moduan igorriko dira.

50. artikulua.- Joan-etorriek eragindako kalte-ordaina

1) Joan-etorriak lanegatik egiten direnean, Sailak bertako irakasleentzako ezarri zituen bidaiengatik ordainketei buruzko araudi orokorrean jasotako irizpideen arabera ordainduko zaizkie (kategoria edozein dela ere, hau da, irakaslea edo hezitzailea).

2) Goizez ikastetxe batean eta arratsaldean beste batean lan egitea izan ezik, ikastetxe batean baino gehiagotan ari diren langileei benetako lanalditzat hartuko zaie kontuan lanaren eraginez sortutako joan-etorria.

3) Hitzarmen honen eraginpeko langileek ikastetxe bat baino gehiagoren arteko joan-etorriak zentzuzko eran eta eraginkortasunez egiteko formulak aztertuko dira Batzorde Parekidean.

51. artikulua.- Ordu-murrizketak

1.- 60 urtetik gorako langileentzat ordu-murrizketak ezarriko dira. Batzorde Parekideak baldintza hori aplikatzeko formulak ezarriko ditu. Sektore horretako ezaugarri bereziak alde batera utzita, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionario publikoen sektorean irudi horretarako erabiltzen direnen antzekoak izango dira. Neurri hori 55 urtetik gorakoentzat zabal daiteke apurka-apurka, betiere langile kopurua kontuan hartuta.

52. artikulua. – Norberaren baliabideak erabiltzeak eragindako konpentsazioa

Batzorde Parekideak bide ezberdinak aztertuko ditu (kalte-ordainarena edota aseguruarena) lanean euren jabetzakoak diren baliabideak erabiltzen dituzten kontserbatorioetako irakasleak konpentsatzeko.

III. KAPITULUA.- ENPLEGUA BANATZEKO NEURRIAK

53. artikulua.- Lanaldiaren borondatezko murrizketa

Langileak lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskatu ahal du, baina lansariak ere hein berean murriztuko zaizkio, hiru urtekoak barne hartuta.

Lanaldia murrizten bada, egoera hori eta beste edozein lan-jarduera burutzea, bai ordainduta zein ordaindu gabe, bateraezinak dira, gutxitu den ordutegiaren barruan bada. Eskatera urtebeterako izango da gutxienez. Baimena eten ondoren, hiru urte igaro beharko dira berriz ere eskatu ahal izateko. Jarduneko zerbitzuan hasita, edo horretara itzulita, bi urte igaro beharko dute baimena eskatzeko.

54. artikulua.- Eszedentzia berezia

Enpresan gutxienez bost urteko antzintasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen ikastetxe berean lanpostua gordeko zaio, gutxienez sei hilabeteko eta gehienez urtebetekoa izango den denboraldian (irakasleen kasuan, sei hilabeteko denboraldiak abuztutik urtarrilera bitartekoa edo otsailetik uztaile bitartekoa izan beharko du). Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bost urte igaro arte irakasleen kasuan eta bi urte igaro arte, berriz, hezitzaileen kasuan.

**55. artikulua.- Irakaslanaren arautzea, irakaskuntza araututik kanpo.**

Lanbide-heziketako irakasleek ez dituzte kobratuko irakaskuntza ez-arautuan ematen dituzten eskolak, eta, ordainetan, irakaskuntza arautuan egin beharreko irakasjarduneko ordu-kopurua ordu eta erdi murriztuko zaio irakaskuntza ez-arautuan egindako ordu bakoitzeko.

Ilido beretik, eta bateragarritasunen araubidea erregulatzen duen arautegiari kalterik egin gabe, Hezkuntza Sailak hitzematen du arlo publikoko irakasleek horrekin zerikusia duten jarduera ez-arautuetan duten partaidetza arautzera bideratutako ekintzak aztertuko dituela; honela, ordainsarrietan oinarritutako egungo sistemaren ordeztu ordu-murrizketetan oinarritutako sistema jarri ahal izango da.

56. artikulua.- Partzialki ordaindutako baimena

Batzorde Parekideak 2003/04 ikasturtea amaitu aurretik jakinaraziko du zein baldintza bete beharko dituzten Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek partzialki ordaindutako baimena eskuratzeko (baimen hau unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Erabakiaren 73.2 artikuluan aurreikusten da).

**ZAZPIGARREN TITULUA.- BIRZIKLATZEA, PRESTATZEA ETA EUSKALDUNTZEA****57. artikulua.- Langileen prestakuntza eta hobekuntza**

1) Kolektiboak bere eginkizunak betetzean beharrezkotzat ageri diren prestakuntza-premiei erantzuteko, eta kolektiboaren lanbide-prestakuntza, egokitzapen eta promozioa bultzatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak antolatutako hobekuntza-ikastaroetara joateko aukera emango die kolektibo honetako langileei.

Prozesu hau ondorengoa da:

- a) Irakasleei dagokienez, euren partaidetza hartuko da kontuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatu eta finantzatzen dituen ikastaroetara buruzko arau orokorrak aplikatuko dira.
- b) Hezitzaileei dagokienez, prestakuntza honela bideratuko da:

1.- Prestakuntza eremuka, dagokion Berritzegunearen bitartez. Eremu jakin bateko eskari zehatzak bilduko dira eta prestakuntza birziklapena egin behar den barrutira edota biztanlegunera egokituko da. Prestakuntza-agentea eta kudeatzailea Berritzegunea bera izango da. Prestakuntzaren arloan beren zereginak egoki betetzen laguntzeko eguneratze-ikastaro laburretan parte hartu ahal izango dute.

2.- GARATU planaren bidezko prestakuntza. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak GARATU planean biltzen diren birziklatze-ikastaroetan (hezkuntza-premia berezien eremuko ikastaroak badira) eta lanbide-jarduera egoki garatzeko beharrezko ikusten dituen bestelako ikastaroetan parte hartzeko aukera emango die hezitzaile guztiei, gainerako parte-hartzaileei aplikatzen zaizkien baldintza eta irizpide berdinak arabera. Ikastaro horiek urteko eskaintzan zehaztuko dira argi eta garbi, ondoren akatsik egon ez dadin.

3.- Ikastetxeetan jasotako prestakuntza; hezitzaile guztiek ikastetxeek diseinatutako prestakuntza-planetan parte hartu ahal izango dute nahi izanez gero, ikastetxe bakoitzeko gainerako parte-hartzaileak bezalaxe eta hauei aplikatzen zaizkien baldintzetan. Baldintza hauek deialdi bakoitzean zehaztuko dira urtero.

2) Birziklatze eta Prestakuntza Batzorde Teknikoa eratuko da; honen egitekoa izango da artikulua honetako edukiak aplikatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak aztertu, proposatu edota ezartzea.

3) Paraleloki, 4.500 €-ko urteko fondoari eutsiko zaio, Hezkuntza Bereziarekin zerikusirik duten beste ikastaro batzuk ordaintzeko. Sailak ikastaro horien berri daukanean, langileen ordezkarietara jakinaraziko die. Batzorde Parekideari dagokio diru-fondo hori administratzea, bai eta horren ezarpenaren ondorioz sor litezkeen eztabaidagaiei buruzko behin betiko ebazpena hartzea ere.

58. artikulua.- Euskalduntzea

1) Hitzarmen hau garatzeko eta bere jarraipena egiteko, Batzorde Parekidearen baitan, Euskalduntze Batzorde Teknikoa eratuko da; Batzordearen egitekoa izango da Hitzarmen honetako edukiak gai horretan aplikatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak aztertu, proposatu edota ezartzea.

2) Hitzarmen honek hartzen dituen langile finkoek doako ikastaro trinkoetara nahiz barnetegikoetara joateko eskubidea izango dute. Ikastaroak astelehenetik ostiralera izango dira, egunean 5 ordukoak gutxienez. Ikastaldi horretan langileak ez du ohiko lanaldirik bete behar, eta



dagokion IRALEko ikastetxeko egutegiari lotuko zaio. Eskubide hori modu subsidiarioan langile ez-finkoei ere zabalduko zaie, Batzorde Parekidean erabakitako baldintzetan.

3) Ikastaroak egiteko eskaeretan, ikastaroetan onartzeko irizpideetan eta prozesuaren jarraipenean, IRALE Zerbitzuak finkatzen dituen funtzionamenduko arauetara jarraituko zaie, argibideetarako liburuxkan ezarritakoarekin bat etorriz. IRALE Zerbitzuak ikastaroetara joan diren langileek egindako aurrerapausoen eta lortutako mailaren berri emango dio Batzorde Parekideari.

4) Aipatutako ikastaroetara ez baina lanorduz kanpo euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroetara doazen langileek matrikula eta ikastaroen jardunaren ondoriozko gastuen ordaina jasotzeko eskubidea izango dute, baina horretarako ikastaroan parte hartu dela egiaztatu beharko da, IRALEren arauetara jarraiki.

STEE-EILLAS

**ZORTZIGARREN TITULUA.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA****59. artikulua.- Sektore arteko akordioa**

Zortzigarren titulu honetako edukiak (Laneko segurtasuna eta osasuna) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta erakunde sindikalek, Laneko Arriskuen Prebentzioko azaroaren 8ko 31/1995 Legeari eta bera garatzen duten arauei jarraiki, Sailaren menpe dauden langileentzat hitzartuko duten sektore arteko akordioaren pean egongo dira.

STEE-EILLAS

**BEDERATZIGARREN TITULUA.- ESKUBIDE SINDIKALAK****60. artikulua.- Jarduera sindikala**

Eskubide sindikalak eta jardun sindikala gauzatzeko eta garatzeko, oraingo araudia bete beharko da, bereziki indarrean dagoen "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskubide sindikalei eta jardun sindikalak betetzeari buruzko Esparru Akordioa" delakoa (1988ko azaroaren 18ko EHAA) eta Autonomia Erkidegoko Administrazio honen esparruan etorkizunean sinatzen diren bestelako akordioak.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko jardun sindikala honako idatz-zati hauekin osatuko da:

- a) Ordezkapenen zerrendak aukera ematen duen guztietan, sindikatuko orduak jarduera sindikalak burutzeko erabiltzen ari direlako ikastetxetik kanpo dauden langileak ordezkatu behar dira, betiere gutxienez egun baterako kanporatzen badira eta hori gertatu baino gutxienez lau egun natural lehenago jakinarazten badute.
- b) Sindikatuko liberatu guztiak jarduneko zerbitzu-egoeran daude ondorio guztietarako. Horiek berez dagozkien ordainsariak jasoko dituzte. Bateraekin izango dira liberazio sindikala eta egoera hori onartzean uzten diren kargu edo funtzioen ordainsariak jasotzea.

61. artikulua.- Batzarrak

Ikastetxeko langileek zentroan bertan egin ahal izango dituzte batzarrak, lan-orduetatik at, horrek ez badu oztopatzen bertako irakaskuntzako jarduerak eta zerbitzuak behar bezala garatzea. Nolanahi ere, indarrean dagoen legeriak ezartzen duena bete beharko da.

Bilera horiek ikastetxeko zuzendariari jakinaraziko zaizkio, behar besteko aurrerapenez jakinarazi ere, eta, halaber, bileretan jorratuko diren eguneko aztergaiak eta ikastetxeak ez izan arren batzarrera joango diren pertsonen zerrenda emango zaizkio aditzera.

62. artikulua.- Sekzio sindikalak

Sekzio sindikalen eta Administrazio organoen arteko harremanak sakontzen laguntze aldera eta haiek eta dagozkien sindikatuek elkarren artean lotura sendoagoa izan dezaten, ordezkari-erakundeetako sekzio sindikalek kide bat hautatu ahal izango dute, ordezkari-lanetan jardun dezan, eta, horretarako, bere lanaldia bete beharretik erabat aske geldituko da. Edonola ere, honek ez du gainerako kideei dagozkien ordu sindikaletan eraginik izango. Egoera honek irauten duen bitartean, langileak ez du ordainsaririk jasoko.



HAMARGARREN TITULUA.- DIZIPLINA ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- HUTSEGITEAK

63. artikulua.- Hutsegiteak

Langileak lan egin bitartean edo lanaren ondorioz egiten dituen diziplinako hutsegiteak hutsegite arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

64. artikulua.- Hutsegite arinak.

Hutsegite arinak dira:

- a) Lanean atzerapena izan, ardurarik eza edo axolagabekeria erakustea.
- b) Jendearekin, lankideekin, menpekoekin edo goikoekin oker jokatzea.
- c) Lanera ez joatea, egun batean, arrazoirik izan gabe.
- d) Hilabete berean, behin baino gehiagotan, lanera berandu iristea, arrazoirik izan gabe.
- e) Lanaldia ez betetzea, arrazoirik izan gabe.
- f) Ikastetxeko lokalak eta materiala zaintzeko orduan arduragabea izatea.

65. artikulua.- Hutsegite larriak

Hutsegite larriak dira:

- a) Nagusiekin begirune eta obediencia ezaz jokatu dela egiaztatzea.
- b) Lantokian liskarrak piztea edo liskarretan parte hartzea.
- c) Lanaldian zehar langilearen edo Hezkuntza Sailaren duintasunaren aurka egiten diren ekintzak.
- d) Arduragabe izateagatik, ikastetxeko lokaletan eta materialean kalte larriak eragitea.
- e) Hilabetearen barruan, ondoz ondoko bi egunetan edo txandakako hiru egunetan lanera ez joatea, arrazoirik izan gabe.
- f) Lanean mozkortuta egotea edo drogak hartzea.
- g) Nagusiek menpekoekin agintekeriaz jokatzea.
- h) Hutsegite arinak behin eta berriro egitea hiruhileko batean, desberdinak izan arren eta, horiek direla-eta, zehapenak ezarri direnean.
- i) Langilearen egitekoak eta betebeharrak ez betetzea, horrek zerbitzuari arazo larriak eragiten badizkio eta ezin bada hutsegite oso larritzat hartu.

66. artikulua.- Hutsegite oso larriak

Hutsegite oso larriak dira:

- a) Mendekotasuna ukatzea agerian, nahiz banaka, nahiz taldean.
- b) Hilean ondoz ondoko hiru egunetan edo ondoz ondokoak ez diren hiru egunetan baino gehiagotan lanera ez joatea, arrazoirik izan gabe.
- c) Gaixorik egotearen edo istripua eduki izanaren plantak egitea. Gaixotasunagatik edo istripuagatik bajaran dagoen langileak bere kontura edo besteren kontura lan egiten badu, hori hutsegite oso larritzat joko da.
Halaber, hutsegite oso larria izango dira gaixotasunagatik edo istripuagatik baja luzatzeko langileak egindako ekintza edo omisio guztiak.
- d) Lanean behin baino gehiagotan mozkortuta egotea edo drogak hartzea.
- e) Nagusiei, lankideei, ikasleei edo jendeari hitzez edo egitez tratatu txarrak ematea, edo horiekiko errespetu edo begirune ezaz hutsegite larria egitea.



- f) Gainontzeko langileei edo Sailari, edota hortik kanpo, lanordutan ebastea edo lapurretan egitea. Atal honetan sartuko da datu faltsuak maltzurkeriaz erabiltzea etekinen bat lortzeko, edota lanean aritu bitartean eginiko doluzko delituren bat dela-eta zigortua izatea.
- g) Ikasturte berean zehapena jaso duten hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

II. KAPITULUA.- ZEHAPENAK

67. artikulua.- Zehapenak

Hutsegiteen larritasunaren eta egoeraren arabera, Sailak ezar ditzakeen zehapenak honako hauek dira:

- a) Hutsegite arinengatik:
 - Hitzezko edo idatzizko kargu-hartzea.
- b) Hutsegite larriengatik:
 - Idatzizko kargu-hartzea.
 - Berriro ere lehenean jausiko balitz, lanik eta soldatarik gabe utziko da egun batetik hamabost egunerako tartean.
- c) Hutsegite oso larriengatik:
 - Enplegua eta soldata kentzea, hamabost egunetik hogeita hamar egunerako tartean.
 - Lanetik bidaltzea.

68. artikulua.- Zehatzeko ahala.

- 1) Hutsegite larriak eta oso larriak direla-eta zehapen bat jarri aurretik, zehapen-espedientea tramitatu beharko da eta langileak bere defentsan nahi dituen frogak aurkeztu ahal izango ditu. Zehapenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariak ezarriko ditu.
- 2) Hutsegite arina zehatzeko ez dago zehapen-espedienterik ireki beharrik. Zehapenak lurralde-ordezkariek ezarriko ditu.

69. artikulua.- Preskripzioa.

- 1) Lurralde Ordezkariek jakin eta handik hamar egunera galduko dute indarra hutsegite arinek, larriek hogeira eta oso larriek hirurogeira, eta kasu guztietan hutsegitea gertatu zenetik 6 hilabetera.
- 2) Espedientea irekitzean indargabetze-epaia eten egingo da tramitazioak irauten duen bitartean, salbu eta espedientea sei hilabete baino gehiago gelditu egiten bada langileak errurik izan gabe.

**HAMARGARREN TITULUA.- GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO NEURRIAK****70. artikulua.- Genero-berdintasunaren aldeko neurriak.**

EBren gomendioei jarraiki eta EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planean (1999ko abendua) ezarritakoa garatze aldera, bi aldeak honakoak egitera konprometitzen dira:

- a) Emakumeekin zerikusia duten legezko arauak eta gomendioak (berdintasunerako planak, akordioak, etab.) betetzen direla zaintzea, gerta litezkeen tratu-desberdintasunak desagertu daitezkeen; halaber, diskriminazio-egoerarik ez dagoela egiaztatzea eta ekintza positiboko neurriak aplikatzen direla bermatzea.
- b) Emakumeen diskriminazioa, euren lan-baldintzak, organo erabakitzaileretan duten presentzia, etab.ekin erlazionatutako arazo eta gaien buruzko txostenak egitea.

Administrazioak hitzematzen du hizkuntza ez-sexista erabiliko duela eta ez duela emakumearen bereizkeriazko irudirik aurkeztuko. Aipatu beharrekoa da zenbait lanposturen izendapena aldatu egingo dela, estereotipoen ondorio baitira. Estereotipo horien arabera, lan edo jardura batzuk gizonezkoiei dagozkie eta beste batzuk, berriz, emakumezkoiei, eta azken hauek gizartean gutxietsi egiten dira.

Irizpide hauek estatistikei buruz hitz egiterakoan ere aplikatu behar dira, alegia, sexua aldagaiaren sektorean nolabaiteko garrantzia duten datuak aztertzerakoan hartuko da kontuan.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.- Berme Klausula.- Hitzarmen honetan jasotzen diren baimen, aurrerakin, nomina-aurrerapen, borondatezko erretiroagatiko kalte-ordain, bizitza, istripu eta erantzukizun zibileko aseguru, eta bidaien ordainketei buruzko klausulak unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako erabakian ezarritako terminoen arabera hobetuko dira. Berehala aplikatuko da eta aipatu den hitzarmenean jasotzen diren ondorio berdinak izango ditu.

Bigarrena- Hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartuta dauden eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileek Langileen Estatutuak –144/1999 eta 1131/2002 dekretuek eta araudiko gainerako xedapenek garatutakoak– 12.6 artikuluan jasotzen duen erretiro partziala hartu ahal izango dute. Hortaz, enplegua eskatzen dutenen artetik hautatzen diren langileekin, txanda-kontratua egingo da, hitzarmen honen III. eranskinean ezarritakoari jarraiki.

Batzorde Parekidea arduratuko da, Autonomia Erkidegoko Administrazioako beste foro batzuekin koordinatuta, agindu horren pean dauden kategoriak eta berau aplikatzeko formulak aztertzeaz eta ezartzeaz.

Hirugarrena- Dagokien ikastetxeko zuzendariak bertako irakasleen klaustrora deituko ditu hezitzaileak eta beren zereginekin zerikusia duten gaiak jorratu behar direnean bertan egongo direla bermatuko du.

Laugarrena.- Martxoaren 5eko 30/1985 Dekretuaren arabera Arabako Foru Aldunditik transferitutako langileek orain arte izan dituzten familia-laguntza, hartzaindegirako laguntza, eta ekonomatorako baldintza hobeak izaten jarraituko dute.

Bosgarrena.- Ikastoletako eta publiko bihurtutako ikastetxeetako langileentzat sinatu ziren hitzarmen kolektiboek barne hartzen zituzten irakasle guztiek erretiro-saria jasotzen jarraituko dute baldintza onuragarriago gisa. Erretiro-saria emango zaie, erretiroa hartzerakoan edo ezintasun iraunkor erabatekoa edo osoa aitortzen zaienean (sailarekiko kontratu-harremana etenik), sailean hamabost urte baino gehiago egin dituzten langileei. Saria honakoa izango da: aparteko hiru ordainsari, eta beste ordainsari bat lehenengo hamabost urtez gaineko bosturteko bakoitzeko.

**I. ERANSKINA****2003ko ORDAINSARIAK**

Irakasleek irakasle funtzionario publikoen arloko kategoriek jasoko dituzten ordainsari berdinak kobratuko dituzte.

Lehen Irakaskuntzako eta Lanbide Heziketako irakasle espezialistei eta irakasle egokiari dagokienez, 2003. urtean horien ordainsariak igoera lineala izango du, Lehen Irakaskuntzako eta Lanbide Heziketako irakasle titularra kategoriako irakasleen ordainsariak izango duenaren antzekoa. Zereginak antzekoak direnez, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, Lehen Irakaskuntzako eta Lanbide Heziketako irakasle espezialisten ordainsaria eta irakasle egokiarena Lehen Irakaskuntzako eta Lanbide Heziketako irakasle titularra kategoriako irakasleei dagokienaren antzekoa izango da.

2003an Fisioterapeuta, Okupazio Terapeuta, Gizarte Langilea, Hezkuntza Laguntzako Espezialista eta Transkriptorea eta Material Egokitzaila kategoriei dagokien ordainsari-igoera Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 27ko 8/2002 Legea aplikatzearen ondoriozkoa izango da.

STEE-ELVA



II. ERANSKINA

HITZARMEN HONETAKO ZENBAIT KATEGORIARI DAGOZKION ZEREGINAK

FISIOTERAPEUTA

Fisioterapeutek honako zereginak beteko dituzte:

- 1.- Ebaluazio psikopedagogikoa egiterakoan TMri laguntzea; horretarako, mugitzeko eskasietatik etorritako hezkuntza-premia bereziak (h.p.b.) dituzten ikasleek mugimendua garatzeko duten maila baloratuko da.
 - 2.- Bere lanarekin lotutako gaietan, curriculuma nola egokitu eta curriculumera sartzeko zein egokitzapen egin jakiteko aholkua ematea.
 - 3.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen mugimendua garatzea errazten duen programa egiten parte hartzea, curriculumaren egokitzapenen edota curriculumera sartzeko egokitzapenen esparruan.
 - 4.- Mugitzeko eskasietatik etorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen funtzio-gaitasunen garapen handiena lortu nahi duen programa gauzatzen parte hartzea, curriculumaren esparruan eta lan-taldearen programa orokor baten zati gisa.
 - 5.- Irakasle, TM, okupazio-terapeuta, logopeda, laguntzaile, errehabilitazioko mediku, eta mugitzeko urritasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretan edota hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten profesional guztiekin koordinazioan jardutea, hasierako balorazioa egin, hezkuntza-erantzuna antolatu eta behar diren jarraipena eta ebaluazioak gauzatzeko.
 - 6.- Mugitzeko eskasietatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten familiei eta gainontzeko profesionalei aholku eman eta orientatzea, bere lanarekin lotutako gaiei buruz.
 - 7.- Urteko plangintza eta memoria egitea, baita ikertutako ikasleen txostenak ere.
 - 8.- Bere jarduerarekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalekin koordinatuz garatuko dira.

OKUPAZIO-TERAPEUTA

Okupazio-terapeutek honako zereginak beteko dituzte:

- 1.- TMrekin lankidetzan aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa ebaluatzerakoan, eta honako hauek baloratzea: autonomia funtzionala, curriculumera sartzeko behar dituzten laguntza teknikoak eta ikastetxean sartzeko ikasleek dituzten arkitektura-oztopoak.
- 2.- Bere lanarekin lotutako gaietan, curriculuma nola egokitu eta curriculumera sartzeko zein egokitzapen egin jakiteko aholkua ematea.
- 3.- Alderdi hauek jorratzera bideratutako programan parte hartzea: sentimen, zentzu eta pertzeptzioak, funtzio-mugimendua erraztea, garapen psikikoa eta mugimenduarena eta eguneroko bizitzako ekintzetan autonomia handiena indartzea.



4.- 3. puntuari aipatutako gaitasunak ahalik eta gehien garatzera begira dagoen programa gauzatzen parte hartzea, baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek behar dituzten laguntza teknikoaren erabilera baloratzea, entrenatzea eta jarraitzea ere.

5.- Irakasle, TM, fisioterapeuta, logopeda, laguntzaile, errehabilitazioko mediku, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikaslearen arretan edota hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten profesional guztiekin koordinazioan jardutea, hasierako balorazioa egin, hezkuntza-erantzuna antolatu eta behar diren jarraipena eta ebaluazioak gauzatzeko.

6.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikaslearen hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten familiei eta gainontzeko profesionaleri aholku eman eta orientatzea, bere lanarekin lotutako gaiari buruz.

7.- Urteko plangintza eta memoria egitea, baita ikertutako ikaslearen txostenak ere.

8.- Bere jarduerarekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea.

Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalarekin koordinatuz garatuko dira.

GIZARTE-LANGILEA

Gizarte-langileek honako zereginak beteko dituzte:

1.- Hezkuntza-premia bereziko ikaslearen gizarte- eta familia-ikerketa eta balioespina egitea. Zuzeneko gizarte eta hezkuntzako partehartze-proposamena egitea edo bidezko errekurtsora bideratzea, eta, ondoren, kasuaren jarraipena eta ebaluazioa.

2.- Ikaslearen gizarte-kulturako edukiari lotutako alderdiei buruzko informazioa ematea.

3.- Familia eta ikastetxeen arteko lankidetzaren harremanak sustatzea; horretarako alderdi bakoitzari eskaerak testuinguruan jartzen, lankidetzako aukerak mailakatzen eta alderdi bakoitzak egokitzen hartzen duen erantzuna ematen lagunduko diote.

4.- Dauden baliabideei eta erabiltzeko bide egokiei buruzko informazioa eskaintzea, komunitatearen zerbitzuen eta hezkuntza-sistemaren arteko koordinazioa errazteko.

5.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat edo beren familientzat gizarte-egoera gutxituan egoteagatik onuragarriak diren hainbat baliabidetara hel daitezkeen kudeatze-lana egitea, . Ikasle hauek hezkuntza-sisteman sartzeko eta egoteko behar diren jarduerak garatzea.

6.- Gutxiengo etnikoko ikasleentzat, atzeritarrentzat edota gizarte-egoera gutxituetan daudeneentzat diren harrera-programetan, eskolaratzeko proposamenetan eta eskolaratzea osatzeko programetan parte hartzea.

7.- Gizartean ez egokitzea eragin dezaketen egoerei aurre hartzeko lagungarriak gerta daitezkeen arrisku-adierazleak detektatzen parte hartzea. Beharrezko baliabideak garatzeko plangintzan parte hartzea.

8.- Ikastetxeetan agertzen diren arazoak konpontzeko programak egiten parte hartzea. Arazo hauen arazoak gizarte- edo familia-ingurunearen ezaugarrietan dago (absentismoa, higien-osasuna, portaera disruptiboak, familia-gatazka, gizarte- eta kultura-ingurune gutxietsikoa izatea...).

9.- Familiei zuzendutako prestakuntza-programak garatzen parte hartzea.



10.- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza-programetara joatea.

11.- Eskatzen dizkioten txostenak eta datuak eskaintzea, baita bilera teknikoetan eta laneko bileretan parte hartzea ere, bertaratzea eskatzen bada.

Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalekin koordinatuz garatuko dira.

HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK

Hezkuntza-laguntzako espezialistek honako zereginak beteko dituzte:

1.- Autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea eta, honekin lotuta, hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea zaintzea, txukuntzea, garbitzea eta janztea, behar baldin badu, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutorea, etab.).

2.- Hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearen elikadura-ohiturekin zerikusia duten autonomia pertsonaleko programak diseinatu eta burutzea, ezarritako orientabideei jarraituz eta arretaz arduratzen diren irakasleek begiratuta (tutorea, aholkularia, irakasle tutorea, etab.).

3.- Behar duen ikasleari batetik bestera joan behar duenean laguntzea bere eskolako ekintza garatu ahal izateko.

4.- Zerbitzua eskatzen duen ikasleari arreta ematen, begiratzen eta zaintzen biziki parte hartzea, atsedendietan; gainontzeko ikasleekin harreman egokia izan dezala lotzen saiatu beharko da.

5.- Laguntza- eta aholkularitza-profesionalekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, TMren aholkularia, etab.) lankidetzan jardutea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek egin behar dituzten jardueretan, eta bertaratzea eskatzen den horietan.

6.- Bere eskumenaren eremuan, irakasle tutorearekin parte hartzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagozkien Norbanako Curriculum Egokitzapena eta norbanakoen programak prestatu eta egiten; halaber, dagozkion lan horiek gauzatzea.

7.- Bere eskumenekoak diren alderdietan, irakasle tutoreekin, irakasle bereziarekin eta, hala badagokio, TMrekin koordinazioan jardutea, autonomia pertsonaleko programei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.

8.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jokabide- eta komunikazio-ohiturekin zerikusia duten autonomia sozialeko programak diseinatu eta burutzen parte hartzea, ezarritako orientabideei jarraituz eta irakasle arduradunek begiratuta.

9.- Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea, autonomia sozialeko programei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.

10.- Laguntza-profesional osagarriekin (logopeda, fisioterapeuta, IBTren irakasle ibiltaria, okupazio-terapeutua, etab.) lankidetzan jardutea, zertarako eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei curriculumera sartzeko behar dituzten materialak egokitzen eta erabiltzen laguntzeko eta laguntza tekniko eskaintzeko.

11.- Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea; honela, errazagoa izango da Norbanako Curriculum Egokitzapenaren jarraipena eta programazioa eta arretako ikasleek duten eboluzioaren jarraipena egitea, materialak egokitzeari eta laguntza teknikoak eskaintzeari dagokionez.



12.- Dagozkion ardurak aplikatzea, ezarritako protokoloari jarraituz; dena dela, funtzio hauek ikastetxeko gainontzeko profesionalekin batera garatuko dira.

13.- Osagarrizko laguntza-zerbitzuekin parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan.

14.-Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta, manipulazioa, motibazioa eta kontrola zentratzen parte hartu eta lankidetzan jardutea, mugitzeko trebetasunak garatzeko jardueretan eta beren jokoeretan.

15.- Bere eskumenekoak diren alderdien garapenari buruzko informazioa ematea, mugitzeko trebetasunei dagokienez, Norbanako Curriculum Egokitzapenaren ondoriozko banakako programazioaren jarraipena eta arretako ikasleek duten eboluzioarena errazte aldera.

16.- Lehen aipatutako programei buruzko bilera teknikoetan eta ebaluatzeko bileretan parte hartzea.

17.- Bere eskumeneko txosten teknikoak egitea.

Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalekin koordinatuz garatuko dira.

TRANSKRIPTOREA ETA MATERIALAREN EGOKITZAILEA

Transkriptoreek eta materialaren egokitzaileek honako zereginak beteko dituzte:

- 1.- Ekoizpen bibliografikoan lan osagarriak egitea.
- 2.- Erreprodukzioa, grabazioa eta kopiak egitea euskarri-mota desberdinetan.
- 3.- Braille transkribatzea eta zuzentzea.
- 4.- Erliebezkotako diseinuak egiten eta maketak ekoizten parte hartzea.
- 5.- Bereziki eskatu badiote eta jarraibideen arabera, testuen eta grabaketan kalitatea kontrolatzea eta gainbegiratzea.
- 6.- Bere ardurapean dagoen tresneriaren mantentze-lanetan aritzea.
- 7.- IBT-ko hainbat kiderekin koordinatzea baliabide eta laguntza teknikoak egiteko prozesua errazteko.



III. ERANSKINA

HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK ORDEZKATZEKO ARAUDIA

Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek, norik bere lurralde-esparruan, hautagaien zerrendak kudeatuko dituzte, ikastetxe publikoek ikasturtean zehar Hezkuntza Bereziko irakasleak aldi baterako hartzeko dituzten beharrak betetzen jateko.

Araudi honen plangintza orokorrak irizpide hauek ditu:

- a) Hezkuntza-sistema publikoaren eskaerei kalitate eta eraginkortasunez erantzungo dien ordezkapenen zerbitzua eskaintzea.
- b) Ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda bakarria taxutzea –kategorien arabera–, “langileak” artikuluan aipatutako kolektiboez osatua.
- c) Ordezkapenetarako izangaiei lehentasun-ordena ematea.

Araudi honen bidez, alde batetik, zerrenda kudeatzeko lanean aintzat hartu beharreko osagaiak zehaztu nahi dira (hala nola langileak, zerrendara sartzeko baldintza orokorrak, baremaziorako irizpideak, zerrenda egiteko prozedurak eta baldintza orokorrak, funtzionamendua...), eta, bestetik, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda kudeatzeko lana eraginkorragoa eta bateratuagoa izatea lortu nahi da.

Langileak

Araudi hau hezkuntza bereziko lan-legepeko langileei aplikatuko zaie. Hezkuntza-laguntzako espezialista, fisioterapeuta, okupazio-terapeuta, gizarte-langilea eta transkriptorea eta materialaren egokitzailea zerrendak egingo dira.

Zerrendan sartzeko eskakizun orokorrak

1. Ikasketa-tituluak:

Zerrendetan egoteko ezinbesteko eskakizuna da dagokion titulua izatea:

Fisioterapeuta	Fisioterapiako diplomatua
Okupazio-terapeuta	Terapia okupazionalako diplomatua
Gizarte-langilea	Gizarte-laneko diplomatua
Hezkuntza-laguntzako espezialista	Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak
Transkriptorea eta Materialaren egokitzailea	LH 1.eko titulua, administrazio-adarra.

Zerrendetako langileek, aurreko paragrafoan adierazitako titulazioa izan ezean eta titulazio berria eskatzen duen lanpostuen eskaintza publikoa gauzatu arte, 2004/2005eko ikasturtea hasi aurretik nahitaezko prestakuntzaren erdia gutxienez izatea egiaztatu beharko dute. Aipatutako prestakuntza-modulura sartzeko proba aurretik egin behar dutenek proba gainditua izan beharko dute eta esandako data baino lehenagotik matrikulatuta egon. Betekizun hau betetzen ez duten langileek epea luzatzeko eskaera arrazoitua aurkeztu ahal izango dute. Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak ebartziko ditu eskaera horiek.

2. Euskarako tituluak.



- a) Kategoria bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna izatea.
- b) Hizkuntza-eskakizunarekin berdinetatik hizkuntza-ziurtagiriren bat izatea. Euskarako titulua fotokopia konpultsatua bidez egiaztatuko da.

Aipatu ditugun bi eskakizunak (titulazio akademikoa eta euskarako titulua) beharrezkoak dituzte zerrendak irekitzeko orduan zerrendetara sartu nahi duten hautagaiek.

Egun zerrendetan dauden langileek hizkuntza-eskakizunik ez badute derrigorrezkotasun atzeratuko lanpostuetan ordezkapenak egin ahal izango dituzte.

Barematzeko irizpideak

Lan-esperientzia.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden hezkuntza bereziko laneko kolektiboetan zerbitzuak eman izana: puntu 1 hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe.
- Baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan zerbitzuak eman izana: puntu 0,5 hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe. Atal honetan Hezkuntza Bereziaren eremuan emandako zerbitzuak baino ez dira kontuan hartuko.

Zerrendetan sartuta dauden hautagaiek ez dute eskatu behar Euskal Autonomia Erkidego honetako ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak eguneratzeko, Administrazioak egingo baitu ofizioz.

Lanaldi partzialeko erregimenean emandako zerbitzuek lanaldi osoko erregimenean emandako zerbitzuen puntuazio bera izango dute.

Ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak ez dira barematuko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuak bailiran, hauek sail hau ez den beste erakunde batzuekin egindako kontratuean eman direnean.

Zerbitzu konputagarriak, kasu bakoitzean, zerrenda bakoitzean dagokion kategoriarekin ematen direnak izango dira.

Zerrendak egiteko prozedura eta baldintzak

Ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak taxutuko dira, "langileak" artikuluan aipatutako kolektiboetara osatua. Urtero zerbitzuak berriro barematuko dira.

Orotara egindako zerbitzu-egunak zenbatzean berdinketa gertatzen bada, Sailarentzat lanean noiz hasi ziren begiratu da, eta lehenago hasi zenak izango du lehentasuna. Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, bera hausteko, izenen eta abizenen ordenamendu alfabetikora joko da, eta, horretarako, zozketa bat egingo da urtero, zein letratetik abiatu zehazteko.

Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan, honako datu hauek jaso behar dira:

Abizenak eta izena
Zerbitzu-egunak
Eskakizuna
Lurraldea/lurraldeak

Zerrendetan ez badago nahikoa hautagai ordezeko langileen beharrezko erantzuteko, hautagai berrien zerrendak egiteko aukera egongo da. Zerrenda hauetako izen-abizenak alfabetoaren arabera ordenatuko dira, zein letratetik barematzen hasiko den zehazte aldera urtero-urtero gainerako hautagaiekin batera egiten den zozketa oinarri hartuta.

Urtero, zerbitzuak berriro barematzen direnean, ordezkapenentarako hautagaiei zerrendetan aldaketak sartzeko aukera emango zaie; horretarako, dagozkion agiriekin batera eskabidea



aurkeztu beharko dute Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan. Honela, lurralde batean baino gehiagotan eskaini ahal izango dituzte zerbitzuak lanaldi partzialean edota osoan.

Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenden funtzionamendua

1. Funtzionamendu orokorra.

Ordezkapena egin behar denean, dagokion zerrendara jo, eta eskura dagoen zerrendako lehenengo pertsonari eskainiko zaio.

Ordezkapena egiteko deia jasotzen duenak eskaintzari uko egiten badio arrazoirik gabe, zerrenda horretatik kanpo geldituko da. Ordezkapena ez onartzeak ez du ekarriko zerrendatik kanporatzea, baldin eta uko egiteko bidezko arrazoia badago eta arrazoi hori behar bezala dokumentatuta badago. Bidezko arrazoiak izango dira aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan ikusitako lizentzia eta baimena lortzeko eskubidea ematen dutenak.

Halaber, zerrendatik ezabatua izan gabe plazari uko egiteko, honako arrazoi hauek onartuko dira:

- a) Askatasuna kentzeko zigorra, zigortzeko epaia eman arte.
- b) Hezkuntza Sailak, HAEEK edo hezkuntza-arloko beste administrazioen batek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
- c) Ikasten edota praktiketan egotea. Ikasten arituz gero, ikasturte batez uko egin ahal izango dio ordezkapenari eta matrikularen bitartez egiaztatu beharko da. Praktiketan egonez gero, hauek iraun bitartean uko egin ahal izango zaio ordezkapenari; horien iraupena frogatzeko egiaztagiria aurkeztuko da.
- d) Hezkuntza-sistemeekin zuzeneko harremana duten beka edo laguntzak jasotzea.
- e) Era berean, aldi baterako kontratu batekin zerbitzuak ematen ibiltzea ere uko egiteko nahikoa arrazoi izango da, nornahi dela ere kontratua egin diona. Horretarako, prestazioa benetan eman dela egiaztatu beharko da, bai eta prestazioa zein motatakoa izan den ere, gizarte-segurantzian alta eman izanaren (ezin saihestuzkoa baita hori) ziurtagiriaren bidez edota lan-kontratuaren beraren bidez.
- f) Badago eskainitako ordezkapenari uko egitea seme-alabaren bat urte bat bete arte zaindu beharra izanez gero; ordezkapenen zerrendan jarraitzea beste eskubiderik ez da edukiko horrelakoetan. Egoera horrek seme-alabak urte bat bete arte iraungo du; hala ere, epe hori bete baino lehen laneratzea ere izango da. Gehienezko epea amaitutakoan edo epea bete baino lehen laneratuz gero, Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaio ukoaren arrazoi zen egoera amaitu dela. Gehienezko epe hori igaro eta gero zerrendan berriro sartzeko eskaerarik egin ezik, hautagaia zerrendatik kanpo geldituko da.
- g) Orokorrean, lanaldi murriztuko ordezkapenei uko egitea ere bidezko arrazoitzat joko da.

Ondorio horietarako, urtero zerbitzuak berriz barematzean, hautagaiak lanaldi murriztuko zerbitzuak hartzeko prest daudela idatziz adieraz dezakete. Hori dela eta, dagokion Lurralde Ordezkaritzak prest daudela adierazten dutenei soilik eskainiko dizkie ordezkapen horiek. Pertsona horiek, hemendik aurrera (ikasturte horretan behintzat), eskaintzen zaizkien lanaldi murriztuko ordezkapenak onartu beharko dituzte nahitaez –baztertzeko bestelako arrazoiak salbu–.

Uko egiteko aurreko arrazoiaren bat aurkezten duenak, orokorrean, 5 eguneko epea izango du dagozkion egiaztagiria aurkezteko eta, beraz, arrazoia hor dagoela egiaztatzeko. Halaber, uko



egitera bultzatu zuen arrazoa amaitzen denean, halaxe frogatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da ordezkartzan.

Alabaina, salbuespen bat dago, hots, gaixotasun arruntaren edo lanez kanpoko istripu baten ondoriozko aldi baterako ezintasun-egoeran edota amatasuneko bajarekin dauden irakasleak. Horiei ordezkapenak egiteko deitzen jarraituko zaie, uko egin izan ez balute bezala, eta eskaintzen zaien ordezkapeneko denbora emandako zerbitzu gisa zenbatuko da, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenden baremoari begira.

Zerbitzualdia baremoa egiteko aintzat hartu arren, horrek ez du eraginik izango "antzinatasuna" deritzon ordainsari-osagarriari, ez eta Gizarte Segurantzari begira ere, ez baita benetan zerbitzurik eman.

Hala ere, amatasuna dela-eta uko egin duen pertsonari ordezkatzeko-plaza hautatzeko aukera emango zaio, bai ikasturtearen hasieran, bai IRALERen bigarren txanda adjudikatzean, era horretan, behin ukoa bukatu ondoren, plaza horretan sartu ahal izateko, beti ere ordezkapeneko denborak ukoan igarotakoa gainditzen badu.

Ordezkapenari uko egiteko goian adierazitakoen artean ez dagoen arrazoiren bat emanez gero, horrek zerrendatik kanpo erabat eta betiko gelditzea ekarriko du.

Era berean, izangaia zerrendatik kanpo geldituko da erabat eta betiko, berak eskatutako ezaugarriak (modalitatea, lurraldea, etab.) dituen ordezkapen bat eskaintzeko deitzen badiote eta agertzen ez bada edo uko egiteko bidezko arrazoirik ematen ez badu.

Eskaintza bati arrazoirik gabe uko egiten zaionean, Lurralde Ordezkaritzak ordezkapenaren eskaintzaren, hari egindako ukoaren eta zerrendatik kanpo uztearen berrespena bidaliko dizkio interesdunari. Halaber, jakinaraziko zaio 10 eguneko epean zerrendatik kanpo uztearen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango duela.

2. Funtzionamendu orokorraren salbuespena.

Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta bost irakastegun igaro aurretik irakasle bera ordezkatzeko beharra sortzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko.

Lanaldi osoko ordezkapena betetzen bada eta plaza horren titularra lanaldi murriztuan bueltatzen bada, ordezkariak horretan jarrai dezake lanaldi murriztuan. Alderantziz, lanaldi murriztua betetzean eta, edozein arrazoi dela eta, lanaldi osokoa izateko beharra gertatzen bada, ordezkariari berari eskainiko diote betetzea nahiz eta ez izan puntuaziorik onena.

Zerrendatik kanpo uzteko arrazoi izango da langileak hutsegite oso larriak egin izana; dagokion zehapen-espeditatea egingo da horretarako, eta bertan entzun egingo zaio langileari eta honek egoki iruditzen zaizkion frogak proposatu ahal izango ditu deskargua egiteko.



**BEREN KATEGORIA ETA KARGURAKO EZARRITA DAGOEN ORDAINARIA BAINO
GEHIAGO JASOTZEN DUTEN LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO IRENSEN-
PROZEDURARI BURUZKO AKORDIOA**

Erreferenteak

	<u>Kidegoa</u>	<u>Zuzendaritza-kargua</u>	<u>Maila</u>	<u>Mota</u>
--	----------------	----------------------------	--------------	-------------

ZUZENDARIA

- J. Antonio Gaztelurrutia	Bigarren irak. / Katedra gabekoak	Zuzendaria	Bigarren irak.	D
- Olatz Usabiaga	Maisu-maistrak	Zuzendaria	Lehen irak.	C
- Fco. Javier Cabodevilla	Maisu-maistrak	Zuzendaria	Lehen irak.	D
- Agustín Martínez	Maisu-maistrak	Zuzendaria	Lehen irak.	B

DEPARTAMENTSU-BURUA

Bigarren irak. / Katedra gabekoak	Sailburua	Bigarren irak.	
--------------------------------------	-----------	----------------	--

**MUSIKA ETA A.E.KO
IRAKASLEA**

Musika eta A.E.ko irakaslea			
-----------------------------	--	--	--

Irenste-prozedura

1) SOLDATA:

- Diferentzia 5.000 €-koa edo gehiagokoa bada (bere alde) Izoztea
- Diferentzia 5.000 €-tik beherakoa bada (bere alde) Erreferentetzat hartu diren langileen ordainsarrietan izango den igoeraren %60ko igoera gordin lineala
- Diferentzia aurkakoa bada Parekatzea –2004. urtea-